

# EMAKUMEAK ETA KIROLA LEIOAN



MURGIBE, Berdintasunerako aholkularitza

# AURKIBIDEA

---

	or.
Sarrera / Justifikazioa	6
Helburuak	9
Metodologia	10
EAEko emakumeen kirol-jardueraren egoera	12
Kirol-jarduera Leioan:	15
Leioako emakumeen iritziaren arabera jasotako informazioaren azterketa.	24
Azterketa kualitatiboa: profesionalei eta emakumeen eztabaida-taldeei egindako elkarrizketak	51
Ondorioak	55
Hobekuntza-plana	60

## TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

### Taulak:

1. taula: EAEn emakumeek gehien egiten duten kirola	13
2. taula: EAEn emakumeek kirolik ez egiteko arrazoiak	14
3. taula: Leioako klub eta kirol-eskolak	16
4. taula: kirol-jarduerarako Leioako Udaleko kirol-instalazioak eta instalazio pribatuak	17
5. taula: Leioako kirol-jarduerak	18
6. taula: Leioako udaleko kirol-instalazioetako bazkide diren pertsonentzako kuotak	18
7. taula: Leioako udaleko instalazioetako kirol-eskaintza	19

### Grafikoak:

1. grafikoa: EAeko emakumeen kirol-jardueraren maila (%)	13
2. grafikoa: Leioako biztanleen piramidea sexuaren arabera (2010)	15
3. grafikoa: eskola-kirolean izena emana duten pertsonen kopurua	16
4. grafikoa: Leioako Udaleko ikastaroetan izena emana duten pertsonak, sexuaren arabera	22
5. grafikoa: parte hartzen duten emakumeak adinaren arabera (%)	24
6. grafikoa: desgaitasunen bat duten emakumeak (%)	25
7. grafikoa: parte hartzen duten emakumeen ikasketa maila (%)	25
8. grafikoa: inkestatutako emakumeak lan-egoeraren arabera (%)	26
9. grafikoa: elkarbizitza-egoera (%)	26
10. grafikoa: mendeko seme-alabak (%)	27
11. grafikoa: euren pentzuan dauden mendeko gainerako pertsonak (%)	27
12. grafikoa: kirol-jarduerarako erraztasuna (%)	28
13. grafikoa: kirola egiteko erraztasuna dagoela uste duten emakumeak, adinaren arabera (%)	28
14. grafikoa: kirol-jarduera adinaren arabera (%)	29
15. grafikoa: Desgaitasunen bat duten eta kirola egiten duten emakumeak (%)	29
16. grafikoa: astean libre duten astia (%)	29

17. grafikoa: astean zenbat egunez egiten duten kirola (%)	30
18. grafikoa: taldeko kirola edo banakakoa (%)	30
19. grafikoa: kirol mota (%)	31
20. grafikoa: kirol-kluben batean federatuta dauden edo bazkide diren emakumeak (%)	32
21. grafikoa: federatuta dauden edo bazkide diren emakumeen kopurua adinaren arabera (%)	32
22. grafikoa: zenbat denbora daramaten kirola egiten (%)	33
23. grafikoa: desgaitasunen bat duten emakumeek zenbat denbora daramaten kirola egiten (%)	33
24. grafikoa: kirol-jarduera etetea (%)	34
25. grafikoa: kirol-jarduera etetea adinaren arabera (%)	34
26. grafikoa: eteteko arrazoiak (%)	35
27. grafikoa: kirola egiteko arrazoiak (%)	35
28. grafikoa: kirola egiten hastea (%)	36
29. grafikoa: amen eta aiten kirol-jarduera (%)	36
30. grafikoa: amen eta aiten kirol-jarduera adinaren arabera (%)	37
31. grafikoa: non egiten den kirola (%)	37
32. grafikoa: lekua aukeratzeko arrazoiak (%)	38
33. grafikoa: hilean kirola egiten zenbat diru inbertitzen den (%)	39
34. grafikoa: garestia al da kirola egitea? (%)	39
35. grafikoa: garestia al da kirola egitea? Adinaren arabera (%)	40
36. grafikoa: kirola egiteko eragozpenak (%)	40
37. grafikoa: zure ustez, nahikoa al da egiten duzun kirola? (%)	41
38. grafikoa: zure ustez, nahikoa al da egiten duzun kirola? Adinaren arabera (%)	41
39. grafikoa: astean libre duten astia (%)	42
40. grafikoa: kirola egiten ez duten emakumeek astia dutenean egiten dituzten jarduerak (%)	43
41. grafikoa: honako egoera hauekin identifikatzen dira (%)	43
42. grafikoa: kirola ez egiteko arrazoiak (%)	44
43. grafikoa: kirola ez egiteko beste arrazoi batzuk (%)	45
44. grafikoa: kirola uztea (%)	45

45. grafikoa: zer mailatako kirola egiten zuten (%)	46
46. grafikoa: zer mailatako kirola egiten zuten, adinaren arabera (%)	46
47. grafikoa: amen eta aiten kirol-jarduera (%)	47
48. grafikoa: zure ustez, garestia al da kirola egitea? (%)	47
49. grafikoa: zure ustez, garestia al da kirola egitea? Adinaren arabera (%)	48
50. grafikoa: eragozpenik izan al duzu kirola egiteko? (%)	48
51. grafikoa: kirola egiteko eragozpenak (%)	49
52. grafikoa: zure ustez, kirolen bat egin beharko al zenuke? (%)	49
53. grafikoa: zure ustez, kirolen bat egin beharko al zenuke? Adinaren arabera (%)	49
54. grafikoa: hobekuntza-eskaerak (%)	50

## Sarrera / Justifikazioa

Gizarte modernoek oso baliabide zientifiko eta teknologiko garrantzitsuak diseinatu dituzte gizakion bizitza luzatzeko, lanarekiko eta eguneroko jardueretik harremana hobetzeko eta ingurunetik onura handiagoak lortzeko, ahalegin txikienarekin. Era berean, onura horiek eta bizimodu berriek bestelako arazoak ekarri dituzte, eta modu larrian gainera.

Sedentarismoak, estresak, gehiegizko indibidualismoak, gizarte-egituren aldaketek, ideologia eta portaera-aldaketek, horrek guztiak arriskuak eragiten dizkie pertsonen buru-osasunari eta osasun fisikoari, bereziki pertsona gazteenengan. Gaixotasun kardiobaskularrak, drogak, depresioak, loditasuna eta anorexia dira horietako batzuk. Medikuek, psikologoek, soziologoek eta pedagogoek bat datoz kirola oso baliabide egokia dela esatean, besteak beste, gaitz horiek saihesteko edo haien eragina murrizteko.

Gure inguru soziokulturalean eta azkeneko hogeita hamar urteetan batez ere, kirola dibertsifikatu egin da lortu nahi diren helburuen arabera, eta gizarte-eskaeraren arabera jardun-ereduak garatu ditu. Horrela, honako hauek aurki ditzakegu: **errendimenduko kirola**, kirol-lehiaketan arrakasta lortzeko forma fisiko altua lortzea xede duena; **hezuntza-kirola**, fisikoki eta mentalki garatzeko eta gizartearekin, higieinarekin eta bizimoduarekin zerikusia duten ohiturak hartzeko, batik bat, eskola-aldiarekin bat datorrena; eta **jostaketa-aisialdi-osasunerako kirola**, jarduera mota hori astiarekin eta bizitza osorako ohitura osasungarriekin lotzen da. Azkenaldian, gorputzaren kulturarekin zerikusia daukan jarduera fisikoa ari da indarra hartzen, eta horren helburua estetikoki hobetzea da.

Azken urteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lege-babesak aurrerapauso handiak eman dituela jakitun gara, baina bestalde, berdintasun legalaren eta berdintasun errealaren artean egunez egun zer nolako aldea dagoen ere badakigu.

Kirolaren alorrean, agian jarduera fisikoak eta kirolak gizonen rol sozialarekin izan duen loturagatik, eta agian ere, kirolaren oinarri diren egituren berezitasunagatik, kezka handia eragiten digu emakumeengan aldaketa horiek zer mantso gertatzen diren ikusteak. Emakumearen parte-hartzea minoritarioa izateaz gain, genero-estereotipo sozialez beteta dago eta jarduera fisiko eta kirol-jarduerari nahiz kirolaren beraren kudeaketa eta antolakuntzari dagokion jarduerari eragiten dio.

Badira ia bi hamarkadatik hona, neskak eta emakumeak kirolean parte hartzeko, hainbat arlotan jarduteko eta bertan irauteko politika espezifikoak garatu beharra hauteman dute euskal erakundeek, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri dituzte.

Egoera horretaz jakitun, Leioako Udalak –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako politikak garatzen hamar urte baino gehiago daramatza, eta gaur egun indarrean daukan 2009-2011 II. Planaren ildotik– garrantzitsutzat jo du udalerrian bertan egoera hori aztertzea, helburuetan jasota dagoen bezala: *"Emakumeen eta gizonen artean kirol jarduera anitza sustatzea, genero-estereotipoak desagerraraziz"; "Emakumeen eta gizonen presentzia handitzea tradizionalki beste sexukoek egiten dituzten kirolean"* eta *"Tokiko kirol-jardueretako genero-ikuspegiari buruzko azterketa egitea"*.

Beste alde batetik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean kirol arloa aipatzen da beren beregi, honako hauetan hain zuzen: *"euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako";* eta *"neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonak tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko"* eta *"emakumeen nahiz gizonen kirol-jarduerari laguntzea sustatuko dute, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Halaber, gehitu egingo dira emakumeak gehiengoa diren kirol modalitateentzako laguntza publikoak"*.

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun biologikoa eta, bereziki, emakumeen seme-alabak izateko gaitasuna izan dira kirol-arloan izan diren genero-estereotipoen oinarria, eta funtzio desberdinak eman zaizkie gizonari eta emakumei. Funtzio horiek dira produkzioa gizonentzat eta ugalketa emakumeentzat. Gizonaren gorputzari balorazio funtzionala egiten zaio, eta emakumeen kasuan, berriz, arlo estetiko baliosten da.

Ariketa fisikoaren eta kirolaren arteko beste bereizgarri bat batzuegan eta besteengan eragiten duen motibazioa da. Emakumeengan motibazioa osasunari eustea edo "lirain mantentzea" edo/eta hobetzea (arlotan estetiko) izaten da, eta gizonengan, dibertitzea, denbora ematea, kirola gustatzea, lagunekin elkartzea eta lehiatzea.

Hortaz, emakumeek eta gizonak harreman desberdina dute kirolarekin, eta ez dute norbanakoaren iritziarekin zerikusirik, baizik eta familiak eta gizarteak zehazten duten sexua/generoa aldagaiarekin.

Genero-ikuspegitik kirol-jarduerari buruz egindako azterketa nazional eta nazioartekoetan, oso nabarmena da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna, eta helduei ez ezik, gazteei eta umei ere eragiten die.

Ariketa fisikoak eta kirolak rol sozial maskulinoarekin duten atxikpenaz gain, kirolaren oinarri diren egiturak izan daitezke lortu nahi diren aldaketa horiek horren mantso gertatzeko arrazoiak. Emakumearen parte-hartzea minoritarioa izateaz gain, genero-estereotipo sozialez beteta dago eta

jarduera fisiko eta kirol-jarduerei nahiz kirolaren beraren kudeaketa eta antolakuntzari dagokion jarduerari eragiten dio.

Goian aipaturiko kirol-desberdintasunei dagokienez, emakumeek egiten duten kirola **jostaketa-aisialdi-osasunerako** kirolarekin identifikatzen dute **errendimendu-kirolarekin** baino gehiago, eta emakumeen kirol-jarduera gizonen jardueraren oso bestelakoa da.

Ezin da alde batera utzi gizonek edo emakumeek egiten dituzten kirolek duten eragin eta gizarte-aintzatespen desberdina; izan ere, gaur egungo komunikabideek, oro har, gizonek egiten dituzten kirolei egiten diete arreta, eta emakumeek askoz laguntza eta baliabide gutxiago izaten dituzte maila guztietan.





## Helburuak

Azterlan honen xede nagusia kirol-jardueraren diagnostikoa egitea da genero-ikuspegitik, hau da, emakumeek eta gizonek arlo horretan dituzten beharrizan eta zailtasun desberdinak eta desberdintasun horiek ariketa fisikoarekin eta kirolarekin duten harremanean nola eragiten duten hautematea, Leioako udalerriri dagokionez.

Helburu nagusiaz gain, honako helburu espezifiko hauek bereizten dira:

- Eskola-kiroleko, parte-hartzeko kiroleko, kirol federatuko eta kirol egokituko kirol-jardueraren egungo egoera aztertzea.
- Emakumeek adin-tarte desberdinetan kirolik ez egiteko dituzten arrazoi nagusiak zein diren aztertzea.
- Leioako biztanleek kirola egin dezaten zer zerbitzu eta baliabide dauden ikertzea.
- Generoaren ikuspegitik, kirol-instalazio eta espazioen erabilera desberdina hautematea.
- Kiroldegiko bazkide diren pertsonen kopurua aztertzea sexuaren arabera, eta kiroldegiaren erabileran desberdintasunak identifikatzea.
- Udalerrian kirol federatu eta ez federaturako joerak deskribatzea, bai eta joera eza ere.
- Emakumeek kirol federatuan parte hartzeko dituzten eragozpenak identifikatzea.
- Hobekuntza-plana egitea, hautemandako desberdintasunak eta diskriminazio-egoerak konpontzeko.

Aipatutako helburuak lortzeko, beharrezkoa da metodologia bat zehaztea.

Proposatutako arloak lortzeko erabili diren metodoak eta teknikak ondoko atalean azalduko ditugu.

## Metodologia

Erabilitako metodologiak metodo kualitatiboak nahiz kuantitatiboak baliatzen ditu. Prozesuan zehar, MURGIBE, genero-gaietan aditua den kontrataturiko aholkularitza, azterlanaren udaleko arduradun-taldearekin koordinatu da, eta II. Berdintasun Planaren konpromisoari jarraikiz, Kirol saila eta Berdintasun saila dira horren arduradunak.

Azterketa kuantitatiboaren barruan, hainbat teknika bereizi behar dira. Alde batetik, bigarren mailako iturriak bilatzea eta aztertzea, erakunde publiko zein pribatu izan, Leioan, emakumeen kirol-jarduerari buruzko egungo egoera zein den jakiteko. Beste alde batetik, galde-sorta bat helarazi zaie **16 urtetik gorako Leioako emakumeei** kirolik ez egiteko arrazoiak aztertu ahal izateko. **307 galde-sorta** banatu dira. Galdetegia erantzuteko emakumeak aukeratzeko **adina, desgaitasuna eta kirol-jardueretan parte hartzen duten ala ez** hartu da kontuan, pertzepzio desberdinak jaso ahal izateko.


Azterketa kualitatiboan **5 elkarrizketa egin dira (2 emakume eta 3 gizon)**. Bost lagun horiek Leioako kirol-jarduerarekin zerikusia dute, kirol-munduan adituak eta ibilbide luzekoak izateaz gain, Leioako udalerrinari atxikita daudelako:

- Leioakiroldegia instalazioetako kirol-koordinatzailea.
- Leioako Kirol Elkarteko presidentea.
- Gimnasia Erritmikoko Klubeko presidentea.
- Leioa Waterpolo Klubeko kirol-koordinatzaile eta entrenatzailea.
- Kirolekin enpresako kirol-koordinatzailea.

Era berean, **eztabaida talde bat** egin da, modu batean edo bestean kirol-munduarekin zerikusia daukaten eta gaur egun jardunean dauden 8 emakumerekin.

- Goi-mailako lehiaketako waterpoloko bi jokalaria.
- Goi-mailako lehiaketako saskibaloiko jokalaria bat.
- Saskibaloiko jokalaria federatu eta eskolako entrenatzaile bat.
- Gimnasta federatu bat.
- Eskolako gimnasiako eta goi-mailako lehiaketako entrenatzaile bat.
- Gimnasiako klubeko zuzendaritza-taldeko kide bat.
- Sakonetako goizetako ikastaroetako mantentze-gimnasiako jardueretan parte hartzen duen emakume bat.

Honako diagrama honen bidez, azterketa hori egiteko erabili den metodologia azaltzen da labur:



## EAEko emakumeen kirol-jardueraren egoera

1991. urteaz geroztik, Eusko Legebiltzarrak onartu dituen EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako bost Planek KIROLA hartzen dute esku hartzeko arlo espezifiko gisa. Hain zuzen ere, Legegintzaldi honetarako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Planak, Ahalduntzea Ardatzaren barruan, eta zehazkiago Pertsonen Autonomia eta Balioen Aldaketa programaren barruan, honako helburu estrategiko hau jasotzen du: *"emakumeen autonomiaren garapena eta genero-kontzientzia hartzea sustatzea"*. Era berean, Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak ere aipatzen du emakumeak maila guztietako kirol-jardunean integratzea ahalbidetuko duten politikak bermatzeko premia, eta honako hau dio: *"Euskadiko kirol-federazioetan ez da onartuko sexuagatiko inolako diskriminaziorik"*.

Beste alde batetik, 2003an, Kirolaren Euskal Plana 2003-2007 landu eta onartu zen, eta dokumentu horretan "Emakumea eta Kirola" arloa, jarduera-ildoak zehazteko gai garrantzitsutzat jotzen da.

EAEEn, 2003-2007 Kirolaren Planaren aurreko diagnostikoan jasota dago emakumeen presentzia eskasa, bai federazio-lizentziei dagokienez, bai federazio horietan kudeaketa-lanak egiten dituzten emakumeei dagokienez. Datu horien arabera, hogeita hamar federazioetatik lautan (Neguko kirolak, Gimnasia, Hipika eta Boleibol) soilik daude lizentzia gehiago emakumeenak gizonenak baino (kirolariak edo epaileak). Gainera, federazio horietatik 17tan, gizonen lizentzien kopurua emakumeen lizentzien bikoitza da.


Federazioetako lanpostuei dagokienez, gainera, honako hau ere gehi daiteke:

- Federazio horietan emakumeen enplegarritasuna oso txikia da. Aztertutako 38 federazioetatik 30ean, enplegaturik dauden gizonen kopurua emakumeen kopuruaren bikoitza da.
- Zuzendaritzako edo garrantzi bereziko postuetan (presidentea, presidenteordea edo zuzendari teknikoa) emakumeen parte-hartzea oso txikia da, eta haien zereginak administrazio edo idazkaritza-funtzioetara mugatzen dira batik bat.
- Beste alde batetik, eta euskal selekzio absolutuak kontuan hartuta (goi-mailan lehiatzen direnak), batean bakarrik dira kide guztiak emakumeak; gainerako hamaika selekzioetan kirolari guztiak gizonak dira.

Datu horiek egungo euskal gizartean zer gertatzen den islatzen dute; emakumeen eta gizonen artean desberdintasun handia dago maila guztietako kirol-jarduerari dagokionez, eskola-kiroletik hasi eta errendimendu altuko kirol edo kirol egokitura arte.

EAEko kirol-ohiturei buruzko galdetegia 2009 azterlanean jasotzen denaren arabera, emakumeen adina igo ahala, kirol-jarduera jaitsi egiten da, eta apur bat igotzen da berriro 65 urtetik aurrera. Kirol-jardueraren mailak % 50 gainditzen duen adin-tarte bakarra 15-25 urtekoa da, baina 25 urtetik 35 urtera kirol-jarduera utzi egiten da, eta nabarmen jaisten da 50 urtetik aurrera.

### 1. grafikoa: EAEko emakumeen kirol-jardueraren maila %



Iturria: Kirol-ohiturei buruzko galdetegia. Deloitte egina. 2009

Emakumeek gehien egiten dituzten kirolak honako hauek dira:

### 1. taula: EAEn emakumeek gehien egiten duten kirola (%)

• Gimnasia, aerobic, fitnessa, yoga	% 3
• Ibiltzea	% 17
• Igeriketa	% 13
• Korrika egitea	% 6
• Saskibaloia	% 4
• Mendia eta eskalada	% 4
• Txirrindularitza, Bizikleta, Mendiko bicicleta	% 4
• Dantza edo balleta	% 4
• Futbola	% 3
• Euskal Pilota	% 0
• Arte martzialak, boxeoa eta borroka	% 0
• Besteren bat	% 11

Iturria: Guk geuk egina, Deloittek egindako *Kirol-ohiturei buruzko inkesta* lanean jasotako datuetan oinarrituta. 2009



MURGIBE, Berdintasunerako aholkularitza

Ikus daitekeenez, gehien egiten den kirola mantentze-gimnasia da. Ariketa fisikoa egiteko arrazoiak galdetzean, batez ere lirain mantentzeko (% 36) eta dibertitzeko (% 26) dira erantzunak.

50 urtera arte, arrazoi nagusia dibertsioa da, eta adin horretatik aurrera, medikuak esan dielako edo osasun arrazoiengatik.

Kirolik egiten ez duten emakumeei dagokienez, hona hemen arrazoiak:

## 2. taula: EAEn emakumeek kirolik ez egiteko arrazoiak (%)


• Ez daukat astirik	% 34
• Ez daukat arrazoi berezirik	% 17
• Beste jarduera batzuegatik nekatuta nago	% 12
• Adinagatik	% 9
• Osasuna/lesioak/desgaitasunagatik	% 8
• Ez dut gustuko	% 5
• Garestia da	% 3
• Ez dago instalazio egokirik	% 0
• Bestelako arrazoiak	% 1
• ED/EE	% 10

Iturria: Guk geuk egina, Deloitte egindako *Kirol-ohiturei buruzko inkesta* lanean jasotako datuetan oinarrituta. 2009

## Kirol-jarduera Leioan:

Metodologiaren atalean azaldu den bezala, azterketa honetan, 16 urtetik gorako Leioako emakumeak hartu dira kontuan. Ondoko biztanleria-piramidean ikus daitekeen bezala, emakumeak, guztira, 13.231 dira, adin-tarte bereko gizonak baino gehixeago, 12.457 dira eta. 35 urtetik aurrera, adin-tarte guztietan, emakumeak gizonak baino gehiago dira Leioan.

2. grafikoa: Leioako biztanleen piramidea sexuaren arabera 2010



Iturria: EINEk emandako datuetatik egileak landutako datuak.


Pertsonen eta kirolaren arteko lehenengo harremana eskola-kirola da; oso gaztetatik hasten baita, 7 urtetik 14 urtera arte, hain zuzen.

Guztira, 2.090 neska-mutiko dira Leioako Eskola Kirolean izena emana dutenak udalerriko Kirol-eskolen, Ikastegien eta kirol-kluben bitartez.

Datu horretatik, 720 neska dira, hau da, % 34,4. Mutikoak, beraz, ia bikoitza dira, 1.370 (% 65,6); ahaztu gabe Leioako proportzioa % 49,83 neska eta % 50,17 mutil dela.



**3. grafikoa: Leioan eskola-kirolean izena emana duten pertsonen kopurua**



Iturria: BFAk emandako datuetatik egileak landutako datuak.

Udalerriko Klub eta Kirol-eskolak pertsonen kirol-jardueraren sustapenerako oso garrantzitsuak dira. Hona hemen Leioako kirol-eskola eta klubak:

**3. taula: Leioako klub eta kirol-eskolak**

<b>KIROL-ESKOLA ETA KLUBAK</b>	LEIOAKO ALTZAGA XAKE KIROL ELKARTEA HARTZAK EUSKAL PILOTA CLUB GIMNASIA RITMICA SAKONETA CLUB IRRISTAKETA TALDEA LEIOA SASKIBALOI TALDEA LEIOA IGERI TALDEA EUSKAL KIROL ZALEAK LEIOA MAIA EMAKUME ARETO FUTBOL LEIOA MENDI TALDEA LEIOA JUDO TALDEA C.D. IRLANDESAS TXIRRINTXU ALKARTEA SOCIEDAD DEPORTIVA LEIOA DE FUTBOL CLUB ASKARTZA C.D. GAZTELUETA LEIOAKO KASTOREAK SOCIEDAD TIRO Y CAZA DE LEIOA ESCUELA DE FUTBOL TXANTXARRENE LEIOAKO EUSKAL KIROL ZALEAK C. D. GAZTELUZARRA TXOPERA EHIZA KIROL ELKARTEA CLUB ESGRIMA DE LEIOA SOCIEDAD CICLISTA TXORI-ERRI LEIOA TXIRRINTXU ELKARTEA
--------------------------------	--

Udalaren diru-laguntza jaso duten 19 kirol-klubak honako hauek dira:

- LEIOA JUDO TALDEA
- CLUB GIMNASIA RITMICA SAKONETA
- CLUB IRRISTAKETA TALDEA
- LEIOA SASKIBALOI TALDEA
- LEIOA IGERI TALDEA
- S. D. LEIOA
- LEIOA MENDI TALDEA
- HARTZAK ESKU PILOTA
- LEIOAKO KASTOREAK
- LEIOAKO ALTZAGA XAKE KIROL ELKARTEA
- SOCIEDAD TIRO Y CAZA DE LEIOA
- ESCUELA DE FUTBOL TXANTXARRENE
- LEIOAKO EUSKAL KIROL ZALEAK
- MAIA FUTBOL TALDEA
- C. D. GAZTELUZARRA
- TXOPERA EHIZA KIROL ELKARTEA
- CLUB ESGRIMA DE LEIOA
- SOCIEDAD CICLISTA TXORI-ERRI
- LEIOA TXIRRINTXU ELKARTEA

Leioan kirol-instalazio asko dago, udalekoak zein pribatuak, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

**4. taula: kirol-jarduerarako Leioako udaleko kirol-instalazioak eta instalazio pribatuak.**

<b>Leioako udaleko kirol-instalazioak eta instalazio pribatuak</b>	<p><b><u>5 UDAL-INSTALAZIO</u></b>            KANDELAZUBIETA KIROLDEGIA            PINUETA INSTALAZIOAK            SAKONETA KIROLDEGIA            SARRIENA KIROL-INSTALAZIOAK            LEIOAKO EHUKO KIROLDEGIA</p>
	<p><b><u>7 IKASTEGI</u></b>            IRLANDESAS IKASTETXEA            ASKARTZA IKASTETXEA            GAZTELUETA IKASTETXEA            MESEDETAKO ANDRA MARI IKASTETXEA            J.M. BARANDIARAN INSTITUTUA            TXOMIN ARESTI IKASTOLA            BETIKO IKASTOLA</p>
	<p><b><u>6 GIMNASIO PRIBATU</u></b>            LEJONA FITNESS            KUKKIWON            HIDRA ARTEA            STUDIO 57            ALLENDE            METODO PILATES</p>

Leioako kirol-jardueren eskaintza oso zabala eta anitza da, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

**24. taula: Leioako kirol-jarduerak**

<b>KIROL-JARDUERAK</b>	ARTE MARTZIALAK AEROBIC AIKIDO XAKEA DANTZAK (sevillanak, aretokoak, karibekoak, dantza, etab.) SASKIBALOA BALLETA BODY COMPLET TXIRRINDULARITZA ESGRIMA FUTBOLA MANTENTZE-GIMNASIA HERRI-KIROLAK JUDO MENDIA MUSKULAZIOA IGERIKETA IRRISTAKETA PILOTA PILATES SPINNING TAEKWONDO TAI-CHI WATERPOLOA
------------------------	---

Leioako udaleko kirol-instalazioetako bazkide diren pertsonentzako kuotak honako hauek dira:

**6. taula: Leioako udaleko kirol-instalazioetako bazkide diren pertsonentzako kuotak**

KUOTAK	
Banakako txartela (26 urtera arte)	35 €
Banakako txartela (26 urte eta hortik gora)	69 €
Familia-txartela	121 €
Bazkide berezia (26 urtera arte)	35€
Bazkide berezia (26 urte eta hortik gora)	69€

Iturria: guk geuk egina, udal-instalazioetako katalogoetan argitaratutako datuetan oinarrituta.

Sei hilero ordaindu behar da, urtean bi aldiz: ekainean eta abenduan. Udalaren kirol-instalazioetako bazkide izateko, ezinbestekoa da Leioan erroldatuta egotea edo udalerrian bertan dagoen enpresa bateko langile izatea.

Zenbateko jakin bat gainditzen ez duten diru-irabaziak dituzten Leioako biztanleentzat diru-laguntzak daude, urteko kuotan hobariak aplikatzen baitira. Urtean 4.633,55 €-ko diru-sarrerak gainditzen ez dituzten pertsona erroldatuen kasuan, % 100eko hobaria aplikatuko zaie; eta urtean 4.633,55 € eta 6.953,93 € arteko diru-sarrerak badituzte, % 75eko hobaria izango dute.

Badago beste abonua mota bat "Eguerdiko Erabilera" izenekoa eta 25 € balio duena; horri esker, bazkideak kirol-instalazioak erabili ahal izango ditu astegunetan, 13:00etatik 16:00etara.

Udalerriko kirol-instalazioetan hainbat ikastaro eta kirola egiteko instalazio batzuk aloger hartzeko aukera eskaintzen dituzte. Hainbat arte martzial egin daitezke, gimnasia-jarduerak eta igeriketa. Hain zuzen ere, udalerriko pertsonarik gazteenek hainbat kirol egiteko aukera daukate: futbola, waterpolo, irristaketa... etab., eta udalerriko kirol-eskolek bultzatzen dituzte.

#### 7. taula: Leioako udaleko instalazioetako kirol-eskaintza

JARDUERA	ORDUTEGIA	KUOTAK		
		Bazkideek	Bazkide ez direnek	
Judo (5-14 urte)	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	13,45€	17,75€	
Judo eta defentsa pertsonala (14 urtetik gora)	1 ordu eta 55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	16,85€	25,85€	
Taekwondo (5-16 urte)	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	13,45€	17,75€	
Aikido (14 urte baino gehiago)	Ordu eta erdiko saioak, astean 2 aldiz	20,15€	33,20€	
Tai chi (14 urte baino gehiago)	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	20,15€	33,20€	

GIMNASIAKO JARDUERAK			
Muskulazioa	Astelehenetik larunbatera	19,45€	32,55€
Mantentze-gimnasia	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	13,40€	22,15€
Mantentze-gimnasia	55 minutuko saioak, astean 3 aldiz	20,20€	29,55€
Aerobic	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	13,40€	22,15€
Body complet	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	13,40€	22,15€

<b>Mantentze-gimnasia (Pinueta auzoa)</b>	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	13,40€	22,15€
<b>Tiramenduak</b>	55 minutuko saioak, astean behin	13,40€	22,15€
<b>Pilates</b>	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	40,25€	66,45€
<b>Mantentze-gimnasia / Zikloa</b>	55 minutuko saioak, astean behin	17,25€	28,15€
<b>Zikloa</b>	55 minutuko saioak, astean 3 aldiz	24€	33,40€
<b>Zikloa</b>	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz	17,25€	28,15€
<b>Abdomeneko gimnasia hipopresiboa</b>	55 minutuko saioak, astean behin	20,15€	33,25€
<b>Gyrokinesis</b>	55 minutuko saioak, astean behin	20,15€	33,25€
<b>Aretoko dantzak</b>	Astean behin ( 2 ordu)	12,95€	19,45€
<b>Aretoko dantzak</b>	Astean behin (1 ordu eta erdi)	10,80€	16,20€
<b>Aretoko dantzak</b>	Astean 2 egun (1 ordu)	12,95€	19,45€
<b>Sormeneko dantza (5-8 urte)</b>	55 minutuko saioak, 1 egun	6,45€	9,75€
<b>Hirugarren adinekoen gimnasia</b>	55 minutuko saioak, astean 2 aldiz		Doan
<b>IGERIKETA-IKASTAROAK</b>			
<b>Igeriketa berezia (5-14 urte)</b>	Astean bi egun, ordubeteko saioa	50,60€	86,65€
<b>Jaioberrientzako igeriketa (4-46 hile)</b>	Ordu erdi, astean behin	64,35€	94,30€
<b>Egokitzapena (4 urte)</b>	45 minutu, astean bi aldiz	50,60€	86,65€
<b>Haurren igeriketa-hastapenak (5-12 urte)</b>	45 minutu, astean hiru egun	44,40€	86,68€
<b>Helduentzako hastapena eta hobekuntza (13 urte baino gehiago)</b>	Astean hiru egun, ordubeteko saioa	22,60€	43,35€
<b>KIROL-ESKOLAK</b>			
<b>Nesken Futbol Eskola (7-16 urte)</b>	Astean bi egun, 1 ordu eta erdi	67,65€	102,10€ (urtean)
<b>Waterpolo Eskola (7-15 urte)</b>	Astean bi egun, 55 minutu	7,55€	11,35€
<b>Waterpolo Txiki (6-7 urte)</b>	55 minutu, astean behin	5,00€	7,50€
<b>Haurrentzako Igeriketa Eskola (6-16 urte)</b>	45 minutu, astean bi aldiz	7,55€	11,35€
<b>Haurrentzako Igeriketa Eskola (6-16 urte)</b>	45 minutu, astean hiru aldiz	9,00€	13,60€
<b>Helduentzako Igeriketa Eskola (16 urtetik gora)</b>	45 minutu, astean bi aldiz	13,40€	22,15€
<b>Irristaketa-eskola (5 urtetik gora)</b>	55 minutu, astean bi aldiz	7,55€	11,35€
<b>Esku-pilota (7-16 urte)</b>	55 minutu, astean hiru aldiz	9,00€	13,60€
<b>Esgrima (7 urte baino gehiago)</b>	Astean bi egun, 55 minutu	12,85€	17€
<b>Xakea (6-16 urte)</b>	1 ordu, astean behin	10€	15€
<b>Dantza klasikoa-balleta I (5-8 urte)</b>	55 minutu, astean bi aldiz	8,5€	11,6€


<b>Dantza klasikoa-balleta II (9 urte)</b>	<i>55 minutu, astean hiru aldiz</i>	<i>9,90€</i>	<i>13,90€</i>
--	-------------------------------------	--------------	---------------

ITURRIA: guk geuk egina, udal-instalazioetako katalogoetan argitaratutako datuetan oinarrituta.

Guztira, 7.898 lagun dira Leioako UKEko bazkide. Horietatik, erdia emakumeak dira, hau da, 3.958. Kirol-jardueraren batean izena emanda dutenak, guztira, 6.060 dira, eta horietatik, 3.596 emakumeak.

Honako grafiko honetan ikus daitekeen bezala, gizonak eta emakumeak egiten dituzten jardueretan aldea dago, askoz emakume gehiago dira Tai-Chi, Pilates, Gimnasia, dantza, ballet klasikoa, etab. egiten dutenak. Gizonak dagokienez, aldiz, askoz gizon gehiago dira muskulazioa, arte martzialak, eskalada eta waterpolo egiten dutenak.

**4. grafikoa: Leioako udaleko ikastaroetan izena emana duten pertsonak, sexuaren arabera (n)**



Iturria: Udaletxeko langileek emandako datuetatik egileak landutako datuak.



Emakumeen kirol-jarduerari dagokionez, EAEko eta Leioako egoeraren berri jasotakoan, honako abiapuntuko hipotesi hauek proposatzen ditugu; hipotesiok hurrengo atalean zehar aztertuko dira egiaztatzen diren ala ez ikusteko.

### Abiapuntuko hipotesiak

1. Eskola-kirolaren barruan, neskek mutilek baino kirol gutxiago egiten dute.
2. Gurasoek kirola egitea edo ez egitea baldintzatzaile garrantzitsua da kirol-jarduerarako.
3. Emakume askok egiten du ariketa fisikoa tai-chi, yoga eta pilatesen antzeko jarduerak eginez.
4. Ariketa fisiko batzuk (tai-chi, yoga, paseatzea, etab.) ez direla kirola uste dute askok eta askok.
5. Instalazioak atseginak izateak asko laguntzen du kirol-jardueran.
6. Kirol-jarduera eteten duten emakumeak familia-erantzukizunak dituzten emakumeak izan ohi dira.
7. Kirola egiten duten emakumeei ez zaie garestia iruditzen kirol-jarduera.
8. Kirolik egiten ez duten emakumeak astirik ez dutelako edo familiaz arduratu beharra dutelako izaten da.
9. Kirol egokitua ez dago ikusgai udalerrian.
10. Emakume federatuek kirol-ibilbide luzea daukate.
11. Gaur eguneko krisi ekonomikoaren ondorioz, emakumeek nahiago izaten dute astia dirurik eskatzen ez dien beste jarduera batzuetan ematea.

## Leioako emakumeek eurek jasotako informazioaren azterketa.

Metodologiari dagokion atalean azaldu dugun bezala, 307 galdetegi egin zaizkie 16 urtetik 65 urte baino gehiagora arteko Leioako emakumeei, kirolrik ez egiteko arrazoiak aztertzeko xedez.

Galdetegiaren bitartez, hainbat gairi buruzko galderak egin dira, hala nola, zein diren eurentzako aisialdiko jarduerarik garrantzitsuenak, gaur egun erraztasunik ba ote dagoen kirola egiteko, kirola egiten duten ala ez. Galdera horietatik abiatuta, kirola egiten duten emakumeak eta kirolrik egiten ez dutenak bereizi dira.

Kirola egiten duten emakumeen kasuan, euren denbora libreari buruz, maiztasunari buruz, kirol motari buruz, federatuak dauden ala kluban bateko kide diren ala ez, kirol-jarduera eten ote duten, eta hala bada, zergatik eten duten eta abar galdetu zaie.


Kirolrik egiten ez duten emakumeei dagokienez, aisialdian egiten dituzten jarduerari buruz, kirolrik ez egiteko arrazoiei buruz, inoiz kirolrik egin duten, eta abar galdetu zaie.

Egindako galdetegien bidez lortutako **erantzun nagusiak** honako hauek dira:

### PARTE HARTU DUTEN EMAKUMEEN SOSLAIA

Galdetegia egin duten 307 emakumeetatik, 304 Leioan bizi dira, eta % 38,4 25-44 urte bitartekoak dira; jarraian, % 34,2, 45-64 urte bitartekoak dira. Hirugarren tokian, 65 urtetik gorako emakumeak daude, guztira, % 16,3 dira, eta azkenik, % 11,1, 16-24 urte bitarteko emakumeak.

5. grafikoa: parte hartzen duten emakumeak adinaren arabera




Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.



Galdetegiari erantzun diotenen % 11,4k onartutako desgaitasunen bat daukate. Horietatik gehienek 25-44 urte dituzte (% 37,1), ondoren 45-64 urtekoak, % 31,5; eta gero 65 urtetik gorakoak, % 25,7. Gutxiengoa dira 16-24 urte bitarteko emakumeak, desgaitasunen bat dutela diotenak. % 5,7 baino ez dira adin-tarte horretan onartutako desgaitasunen bat dutenak.

**6. grafikoa: desgaitasunen bat duten emakumeak (%)**




Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Galdetegiari erantzun dioten emakumeen jatorriari dagokionez, oso gutxi dira erantzun duten emakume atzerritarrak, % 6 baino ez.

Prestakuntzari dagokionez, % 23,5ek oinarrizko ikasketak ditu, % 21,8k unibertsitateko diplomatura du, eta hirugarren tokian, % 16k eskola-graduatu edo maila ertaineko lanbide heziketako prestakuntzaren bat du. % 0,7k dio bestelako ikasketak dituela, doktoregoa eta katedratikoa.


**7. grafikoa: parte hartzen duten emakumeen ikasketa maila (%)**



Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Aipatutako 307 emakume horien lan-egoerari dagokionez, gehienak langabetuak dira; ondoren, inorentzako lanean ari direla diotenak, eta gutxien, erretiratuak edo aurretik erretiratuak dira. % 9,1ek bere kabuz egiten du lan. "Beste batzuk" aukera adierazi duten emakumeen erdiak dio EEEn dagoela.

**8. grafikoa: inkestatutako emakumeak lan-egoeraren arabera (%)**




Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Langabezia daudela esan dutenetatik, gehienak, % 36,6 45-64 urte bitarteko emakumeak dira. Aldiz, bere kabuz (% 57,1) nahiz beste inorentzat (% 49,1) lan egiten dutela dioten emakume gehienak 25-44 urte bitartekoak dira.

Emakume horien elkarbizitza-egoerari dagokionez, gehienak bikotekidearekin bizi dira, ondoren datoz, bikotekidea eta seme-alabekin bizi direnak, eta azkenik, % 13, bakarrik bizi direnak.


**9. grafikoa: elkarbizitza-egoera (%)**



Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Emakumeen % 29,6k seme-alabak ditu haren mende, eta horietatik erdiak baino gehiagok 45-64 urte bitarte dituzte.


**10. grafikoa: mendeko seme-alabak (%)**



Iturria: Egindako galdetegi-tatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Ehunekoak jaitsi egiten da beste mendeko pertsona batzuk dituzten emakumeen kasuan; hain zuzen, galdetegia egin zaien emakumeen % 11,1 izan dira beste pertsona baten ardura dutela onartu dutenak. Kasu horretan, 45-64 urte bitarteko emakumeak dira ehuneko handienera, guztira % 52,9.

**11. grafikoa: euren pentzuan dauden mendeko gainerako pertsonak (%)**



Iturria: Egindako galdetegi-tatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.


**KIROLARI BURUZKO IRITZIA**

Galdetegia egin duten emakumeentzat, aisialdiko jarduerarik garrantzitsuena lagunekin egotea da (% 66,1), ondoren, "atseden hartzea" (% 37,8), eta azkenik, "ibiltzera joatea" (% 33,5).

Lagunekin egotea aisialdiko jarduerarik garrantzitsuena iruditzen zaien emakume gehienak 25-44 urte bitartekoak dira (% 36,9).

Galdetegia bete duten emakumeen % 49,5ek kirola egin ohi du. Parte hartu duten emakumeen % 80,8k uste dute gaur egun erraza dela Leioan kirola egitea, erraztasunak eta behar beste baliabide daudelako.


### 12. grafikoa: Leioan kirola egiteko erraztasunak (%)



Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Emakume horien artean, gehienek 25-44 urte bitarte dituzte (% 37,5), eta oso ehuneko antzekoan daude 45-64 urte bitarteko emakumeak (% 35,5).

### 13. grafikoa: kirola egiteko erraztasuna dagoela uste duten emakumeak, adinaren arabera (%)




Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Udalerriko kirol-eskaintzari buruzko informaziorik baduten galdetu zaienean, askok ez dute erantzun, % 32,9k hain zuzen. Erantzun duten emakumeen % 56,9k esan du baduela informazio hori, eta horietako gehienek 25-44 urte bitarte dituzte.

Galdetegia bete duten emakumeen ia erdiak dio kirola egiten duela, eta gehienak 25-44 urte bitartekoak dira.


14. grafikoa: kirol-jarduera adinaren arabera (%)



Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Onartutako desgaitasunen bat dutela dioten emakumeen ia erdiak kirola egiten du.

15. grafikoa: desgaitasunen bat duten eta kirola egiten duten emakumeak (%)




Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

**KIROLA EGITEN DUTENEN KASUAN...**

Kirola egiten duten emakumeen erdiak baino gehiagok dio oso denbora gutxi duela astean zehar. Oso gutxi esaten dute denbora asko dutela.

### 16. grafikoa: astean libre duten astia (%)




Iturria: Egindako galdetegietaetik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Adinari dagokionez, denbora gutxi duten emakume gehienek 25-44 urte bitarte dituzte. Behar beste denbora dutela esan dutenek 16-24 urte bitarte dituzte, eta nahikoa denbora edo denbora asko dutela esan dutenak 65 urtetik gorakoak dira, erretiratzeko adina, hain zuzen.

Emakume gehienek astean 3 egun baino gutxiagotan egiten dute kirola, eta bigarren tokian, astean 3 eta 5 egunez egiten dutenak daude. % 2k bakarrik dio astean 5 egunez egiten duela kirola.

### 17. grafikoa: astean zenbat egunez egiten duten kirola (%)




Iturria: Egindako galdetegietaetik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Adinei dagokienez, 16-24 urte bitarteko neska gehienek eta 65 urtetik gorakoek astean 3 eta 5 egunez egiten dute kirola. Aldiz, 25-64 urte bitartekoek astean 3 egun baino gutxiagotan egiten dute.

Onartutako desgaitasunen bat duten emakume gehienek (% 43,8) astean 3 egunez egiten dutela kirola diote, eta jarraian, astean 3 eta 5 egunez egiten dutenak % 37,5.

Emakume gehienek banakako kirola egiten dute, adina edozein dela eta desgaitasunen bat eduki zein ez.

**18. grafikoa: taldeko kirola edo banakakoa (%)**




Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Honako grafiko honetan ikus daitekeenaren arabera, galdetegia egin duten emakume gehienek banakako ariketak edo kirola egiten dute kirol-instalazioetan, hots, udal-kiroldegietan edo gimnasio pribatuetan.

Gutxiengoa dira aire zabalean egiten dituzten jarduera fisikoak. Gehien egiten den kirola igeriketa da; ondoren, aerobic, eta kasu batzuetan, biak. Hirugarrena txirrindularitzarekin lotuta dago, baina bizikleta estatikoa eta spinning ikastaroak dira. Pilates ere askok egiten duten jarduera da, eta ondoren, korrika egitea kirol-instalazioetan eta aire zabalean.

Taldeko kirolak –saskibaloia eta errugbia– ez dira asko egiten.


### 19. grafikoa: kirol mota (%)



Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Galdetegia egin eta kirola egiten dutela esan duten 152etatik, % 11,2 federatuta daude edo kirol-kluben bateko bazkide dira.

### 20. grafikoa: kirol-kluben batean federatuta dauden edo bazkide diren emakumeak (%)




Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.



Emakumeen artean, % 47,1 16-24 urte bitartekoak dira. Horren ildotik, federatuta edo klubean bateko bazkide diren emakumeen kopurua txikitu egiten da adinean gora egin ahala, eta ez dago 65 urte (edo gehiagoko) bakar bat ere.

**21. grafikoa: federatuta dauden edo bazkide diren emakumeen kopurua adinaren arabera**




Iturria: Egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Desgaitasunen bat duten emakumeetarik inor ere ez dago federatuta edo ez da klubean bateko bazkide.

Kirola egiten dutela esan duten emakume gehienek diote 1 eta 3 urte bitarte daramatela kirola egiten, eta ehuneko txikiagoan, 4 eta 6 urte daramatzaten emakumeak. Gutxiengoa dira urtebete baino gutxiago daramatenak kirola egiten.

**22. grafikoa: zenbat denbora daramaten kirola egiten (%)**




Iturria: Egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Adinari dagokionez, gazteenak dira kirola egiten denbora gehien daramatenak, hau da, 6 urte baino gehiago (adin horretako nesken % 40). 25-44 urte bitarteko gehienek (% 41,7), eta 64 urtetik gorako



gehienek (% 47,6) diotenez, 4 eta 6 urte bitarte daramatzate kirola egiten. Aldiz, 45-64 urte bitarteko gehienez (% 47,1) diotenez, 1 eta 3 urte bitarte daramatzate kirola egiten. Onartutako desgaitasunen bat duten emakumeei dagokienez, % 56,2k dio kirola egiten 4-6 urte bitarte daramatzala, eta ondoren 1-3 urte daramatzatenak datoz (% 25).


**23. grafikoa: desgaitasunen bat duten emakumeek zenbat denbora daramaten kirola egiten (%)**



Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirola egiten duten emakumeen % 26,1ek bakarrik dio inoiz eten duela kirol-jarduera.


**24. grafikoa: kirol-jarduera etetea (%)**



Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

45-64 urte bitarteko emakumeak dira kirol-jarduera gehien eten dutenak (% 42,5). Gutxien eten dutenak 64 urtetik gorakoak dira.

**25. grafikoa: kirol-jarduera etetea adinaren arabera (%)**




Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Desgaitasunen bat duten emakumeen % 10ek soilik eten du inoiz kirol-jarduera.

Eteteko arrazoiei dagokienez, kirol-jarduera inoiz eten dutela onartu duten 40 emakumeetatik (kirola egiten duten emakumeen % 26,1), gehienek (13) lan-arrazoiengatik hartu zuten erabakia, osasun arrazoiengatik (12) edo zaintzarekin zerikusia duten arrazoiengatik (8, seme-alabak zaintzeko, eta 4 beste pertsona batzuk zaintzeko). Zenbait kasutan arrazoi bat baino gehiago adierazi da.

Kirol-jarduera inoiz eten dutela onartzen duten pertsonen adina kontuan hartuta, lan-arrazoiak aipatu dituzten emakume gehienak 45-64 urte bitartekoak dira. Zaintzarekin zerikusia daukan arrazoiaren bat aipatu duten gehienak 25-64 urte bitartekoak dira. Eta osasun arrazoiak edo lesioren bat aipatzen dutenen adina, 45-64 urte bitartekoa da.


**26. grafikoa: kirol-jarduera eteteko arrazoiak (n)**



Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Gaur egun kirola egiten duten emakume gehienek esan dute gustuko dutelako, osasunari eutsi edo hobetzeko eta lirain egoteko egiten dutela. Beste arrazoi batzuk izan dira derrigorrezkotasuna, lehia gustuko izatea eta modan egotea.

**27. grafikoa: kirola egiteko arrazoiak (%)**




Iturria: Egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirola gustuko dutelako eta osasunari eusteko egiten dutela esaten duten emakume gehienak 25-44 urte bitartekoak dira. Aldiz, lirain egoteko egiten duten gehienak 45-64 urte bitartekoak dira.

Onartutako desgaitasunen bat duten emakumeei dagokienez, % 68,8k dio osasun-arrazoiengatik egiten dutela kirola.

Kirola egiten duten emakumeek (% 38,3) diote lagunen bitartez izan dutela kirolarekiko lehenengo harremana. Bigarren tokian (% 20,2) daudenek, medikuaren aholkuz ekin diote kirolari. "Beste batzuk" aukera % 15,9k hautatu dute; % 41,9k gustuko dutelako eta % 32,3k norberaren ekimenez.

**28. grafikoa: kirola egiten hastea (%)**




Iturria: Egindako galdetegi-tatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirola egiten hasteko arrazoia aipatu duten pertsonen adinari dagokionez, "lagunak" hautatu duten gehienak (% 40), 25-44 urte bitarteko emakumeak dira. Eskolaz kanpoko jarduerak gisa ekin ziotenen artean gehienak (% 53,8) 25-44 urte bitartekoak dira. Familiaren bitartez hasi ziren gehienak (% 45,5) 25-44 urte bitartekoak dira. Gainerako aukerei dagokienez, ez dago alde handirik adinari dagokionez.

Gaur egun kirola egiten duten emakumeen aiten % 27k baino ez zuten kirola egiten, amen kasuan aldiz, ehuneko handiagoa da, % 38,8 hain zuzen. Desgaitasunen bat duten emakumeen kasuan gauza bera; kirola egiten zuten aiten kopurua (% 12,5) amena baino txikiagoa baita (% 37,5).


**29. grafikoa: amen eta aiten kirol-jarduerak (%)**



Iturria: Egindako galdetegi-tatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Guraso biek kirola egiten zutela edo dutela esan duten emakume gehienek 25-44 urte bitarte dituzte, eta ehuneko handiagoa da euren aitek kirola egiten duten emakumeen kopurua. 45-64 urte bitarteko emakumeen artean alde handia dago; izan ere, % 37,3k dio amak kirola egiten zuela, eta % 14,3k aitak egiten zuela.


**30. grafikoa: amen eta aiten kirol-jarduera adinaren arabera (%)**



Iturria: Egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirola egiten duten emakume gehienek kiroldegi publiko batean egiten du, eta ondoren daude gimnasio pribatuan egiten dutenak (% 27,8). Hirugarren tokian daude aire zabalean egiten dutenak.

**31. grafikoa: non egiten den kirola (%)**



Iturria: Egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.


Adinaren arabera kirola zer tokitan egiten duten kontuan hartuta, aldea dago batetik bestera; izan ere, gimnasio pribatuetan egiten duten gehienek 45-64 urte bitarte dituzte.

Kirola klubuen bateko instalazioetan egiten dutenen arteko gehienek 25-44 urte bitarte dituzte.

Kirola ikastetxe bateko instalazioetan egiten duten gehienek (% 53,8) 25-44 urte bitarte dituzte, eta gauza bera gertatzen da aire zabalean egiten dutenekin (% 56,3). Gainerako kasuetan, ez dago alde handirik adinari dagokionez, instalazio publikoren batean egiten dutela esan dutenak izan ezik, ni emakumek soilik aipatu duelako aukera hori, eta 25-44 urte bitartekoak dira.

Kirola egiteko lekuaren aukeraketari dagokionez, emakume gehienek etxetik hurbil dagoelako aukeratu dute, eta bigarren arrazoa da lagunak bertan egotea. Hirugarren arrazoa, instalazioak gustuko dituztelako eta atseginak iruditzen zaizkielako izan da.

### 32. grafikoa: lekua aukeratzeko arrazoiak (%)



Iturria: Egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.


Adinei dagokionez, 25-44 urte bitarteko emakume gehienek garrantzi handiagoa ematen diote hurbiltasunari beste aukerarik ez egoteari baino. Beste alde batetik, 45-65 urte bitarte dituztenek honako arlo hauek balioesten dituzte batez ere:

- Ikastegitik hurbil edo zaintzen ditudan pertsonen bizilekutik hurbil daudelako (% 100). Kasu honetan pertsona bakarra da:
- Nire ikastegi edo lantokitik hurbil daudelako (% 85,7)

- Instalazioak gustatzen zaizkidalako, atseginak direlako (% 44,8).
- Nire lagun eta adiskideak bertara joaten direlako (% 40,6).
- Gustuko ditudalako (% 39,3).

Galdetegia egin duten gehienek 30 euro baino gutxiago erabiltzen dituzte kirol-jardueran. Ehuneko txikiagoan, hilean 30 eta 60 euro bitarte gastatzen dutela diote, eta gutxienekoa dira 60 euro baino gehiago gastatzen dutenak.


**33. grafikoa: hilean kirola egiten zenbat diru inbertitzen den (%)**



Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Galdetegia egin duten emakumeen adinari dagokionez, ez dago alderik gastuan, adierazitako adin-tarte guztietan gehienek 30 euro inguru gastatzen baititu. Desgaitasuna dutenen eta ez dutenen artean ere ez dago alderik. Lau emakumetatik hiruk ez du uste kirola egitea garestia denik.

**34. grafikoa: garestia al da kirola egitea? (%)**




Iturria: Egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.



Kirola egitea garestia dela uste duten emakume gehienek (% 57,5) 25-44 urte bitarte dituzte. Aldiz, garestia ez dela uste dutenen artean, gehienak 45-64 urte bitartekoak dira.

**35. grafikoa: garestia al da kirola egitea? Adinaren arabera (%)**




Iturria: egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Desgaitasunen bat duten lau emakumetatik hiruk uste dute kirola egitea ez dela garestia. Ia % 100ek ez du eragozpenik izan kirola egiteko.

Kirola egiteko eragozpenen bat izan dutela dioten 12 emakumeeetatik, erdiak arrazoi ekonomikoak aipatu ditu, gimnasioak eta kiroldegietan eskaintzen diren jarduera batzuk garestiak direla uste dutelako. Beste 3 emakumek diote plaza gutxi daudela, eta gainerako 3 emakumeeek osasunarekin zerikusia duen eragozpen fisikoren bat aipatzen du, lesio bat, esaterako.


**36. grafikoa: kirola egiteko eragozpenak (%)**



Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirola egiten duten eta galdetegia bete duten emakume gehienen iritziz, egiten duten kirol-jarduera nahikoa da.


**37. grafikoa: zure ustez, nahikoa al da egiten duzun kirola? (%)**



Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Honako grafiko honetan ikus daitekeen bezala, kirola egiten duten adin guztietako ia emakume guztiak uste dute nahikoa kirol egiten dutela; 65 urtetik gorakoek, ordea, kontrako iritzia dute.

**38. grafikoa: zure ustez, nahikoa al da egiten duzun kirola? Adinaren arabera (%)**



Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Udalak egiten duen kirol-eskaintzarekiko asebetetze-mailari dagokionez, kirola egin eta galdetegia bete duten emakumeen % 85,5ek ez luke ezer eskatuko emakumeen kirol-jarduera handitzeko.

Hala ere, kontrako iritzia dutenen artean, honako ekintza hauek proposatzen dituzte:

Kirol-jardueren kopurua handitzea.

Defentsa pertsonaleko ikastaroak.



MURGIBE, Berdintasunerako aholkularitza

Ikastaro merkeagoak.


- Jarduera bakoitzerako plaza gehiago.
- Mendizaletasuna sustatzea.
- Dantza-ikastaroak ematea.
- Taldeko jarduera gehiago.
- Ordutegi-malgutasuna.
- Aire zabaleko jarduerak.
- Hilean asteburu batean, doako kirol-jardueraren bat antolatzea.
- Emakumeei zuzenduriko tailerrak, hainbat kirol probatzeko aukera izateko.

### KIROLA EGITEN EZ DUTENEN KASUAN...

Azterketa honen hasieran esan dugun bezala, galdetegia egin duten emakumeen % 49,5ek dio kirola egiteko ohitura duela, eta % 50,5ek ez duela ohiturarik.

Emakume gehienek (% 36,8), astean asti gutxi dutela diote.

39. grafikoa: astean libre duten astia (%)




Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Guztiak 44-64 urte bitartekoak dira, eta asti gehien dutela diotenek 65 urtetik gora dituzte.

Kirolrik egiten ez duten emakume gehienek lagunekin, etxea zaintzen, paseatzen edo etxean atseden hartzen ematen dute denbora librea.


**40. grafikoa: kirola egiten ez duten emakumeek astia dutenean egiten dituzten jarduerak (%)**



Iturria: egindako galdetegietaetik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirolrik egiten ez duten emakumeen erdia egoera honekin bat dator: "ez dut inoiz kirolrik egin". Kopuru txikiagoa dira inoiz kirolen bat egin dutenak, eta gutxiengoa dira kirol asko edo nahikoa egin dutela diotenak.

**41. grafikoa: honako egoera hauekin identifikatzen dira (%)**



Iturria: egindako galdetegietaetik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Adinari dagokionez, 16-24 urte bitarteko emakumeen erdiak dio inoiz kirola egin duela, eta ia proportzio berean diote ez dutela inoiz kirolrik egin.


25-44 urte bitarteko emakume gehienek egin dute kirola inoiz, eta % 37,9k dio ez duela inoiz kirolik egin. % 5,2k dio nahikoa kirol egin duela, eta % 1,7k dio ez duela kirol asko egin.

45-64 urte bitarteko emakume gehienek diote ez dutela inoiz kirolik egin, % 38,9k dio inoiz egin duela zerbait eta % 3,7k dio kirol asko egin duela.

Inoiz kirolik egin ez duten 65 urtetik gorako emakumeen ehunekoa altua da, hau da, % 62,1; eta jarraian, inoiz kirola egin dutenak eta nahikoa kirol eta kirol asko egin dutenak, hots, % 3,4.

Inoiz kirola egin ez izanaren arrazoiei dagokienez, gehienek diote gustu kontua dela; izan ere eta hitzez hitz: "ez dut gustuko kirola egitea" (% 29,1), jarraian (% 20,4) astirik ez dutela diotenak daude. % 18,0k "Beste batzuk" aukera hautatu du.

#### 42. grafikoa: kirola ez egiteko arrazoiak (%)




Iturria: egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Bestelako arrazoiak aipatu dituzten emakumeen artean, gehienek arrazoi ekonomikoak aipatzen dituzte; gaur eguneko krisiagatik eta jarduerak, orokorrean, garestiak direlako.

Bigarren tokian daude beste jardueraren bat lehenesten dutenak eta gogorik edo motibaziorik ez dutenak. Era berean, nekea, beste pertsona batzuk zaindu beharra, ohitura galtzea, adina eta kirola egiteak erakartzen ez dituela aipatzen dutenak daude.


**43. grafikoa: kirola ez egiteko beste arrazoi batzuk (%)**



Iturria: egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirol-jarduera uzteko arrazoiei dagokienez, askok lanarekin erlazionatzen dute lehenik eta behin, ondoren, seme-alabekin, osasunarekin eta bikotekidearekin.

**44. grafikoa: kirola uztea (%)**



Iturria: egindako galdetegietaik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirol-jarduera utzi dutela esan duten 45-64 adin-tarteko emakumeek honako arrazoi hauek aipatu dituzte:

- Seme-alabak.
- Lan-arrazoiak (% 48).
- Beste pertsona batzuk zaindu beharra (% 63,6).

25-44 urte bitartekoen arrazoiak honako hauek dira:


- Bikotekideagatik (% 38,5).
- Hiru emakumek erantzun dute lagunengatik utzi dutela.
- Ikasketengatik (% 60).

Kirola arrazoi medikoengatik utzi dutela dioten emakumeen % 43,8 25-44 urte bitarteko emakumeak dira, eta aldi baterako lekualdaketagatik utzi behar izan duen emakume bakarrak 45-64 urte bitarte ditu.

Kirolik egiten ez duten eta onartutako desgaitasunen bat duten emakumeen % 66,7k osasunarekin loturiko arrazoiak aipatzen dituzte.

Kirolik egiten ez dutenen emakume gehienek lehen parte-hartze mailan egiten zuten.


**45. grafikoa: zer mailatako kirola egiten zuten (%)**



Iturria: egindako galdetegiengatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Adin-tarte desberdinak kontuan hartuta, gehienek diote parte-hartzeko kirolen bat egiten zutela. Emakume gazteen artean, parte-hartzeko kirola egiten dutenen kopurua jaitxi egiten da emakume nagusiagoen aldean. Eskola-kirola egiten zuten gazteenen kopurua nabarmen altuagoa da, emakume nagusiagoekin alderatuz gero.

**46. grafikoa: zer mailatako kirola egiten zuten, adinaren arabera (%)**




Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirolik egiten ez duten emakume gehienek diote euren amek eta euren aitek ere ez zutela kirolik egiten.

Oro har (kirola egiten dutenen zein egiten ez dutenen artean), amaren eta aitaren kirol-jarduera oso baxua den arren, badira aldeak; izan ere, gurasoen kirol-jardueran ehuneko txikiena duten emakumeak dira batez ere kirolik egiten ez dutenak. Beraz, familian kirol-jarduerarik egiten ez duenik dagoen kasuan, kirol-jarduerarik egiten ez dutenen ehunekoa handitu egiten da.

**47. grafikoa: amen eta aiten kirol-jarduera (%)**




Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.



Kirolirik egiten ez duten emakumeei kirola egitea garestia iruditzen ote zaien galdetzean, bietara erantzuten dute, baietz eta ezetz.


48. grafikoa: zure ustez, garestia al da kirola egitea? (%)



Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Oro har, kirolirik egiten ez duten emakumeen artean kirola garesti izateari buruzko iritzia banatuta dago, eta aldea dago adina kontuan hartzen badugu; izan ere, gazteek uste dute gehienbat kirol-jarduera garestia dela. 25 urtetik aurrera, pertzepzioa da ez dela hain garestia; hau da, adinean aurrera egin ahala, handiagoa da kostearen garrantziari buruzko pertzepzioa.


49. grafikoa: zure ustez, garestia al da kirola egitea? (%) Adinaren arabera (%)



Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kiroliek egiten ez duten hiru emakumetatik batek dio ez duela eragozpenik aurkitu kirola egiteko.


50. grafikoa: eragozpenik izan al duzu kirola egiteko? (%)



Iturria: egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Eragozpenen bat aurkitu dutenen artean, gehienek prezioa aipatzen dute. Proportzio txikiagoan daude denborarik eza, osasun-arrazoia eta ordutegien bateraezintasuna aipatzen dituztenak.


51. grafikoa: kirola egiteko eragozpenak (%)



Iturria: egindako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Beste alde batetik, emakume horien arteko erdiak baino gehiagok uste du kirolen bat egin beharko lukeela.


**52. grafikoa: zure ustez, kirolen bat egin beharko al zenuke? (%)**



Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kirolen bat egin beharko luketela uste duten emakume gehienak 45-64 urte bitartekoak dira, eta jarraian, 25-44 urte bitartekoak, 65 urtetik gorako emakumeen erdiak baino gehiagok uste du kirolen bat egin beharko lukeela.

**53. grafikoa: zure ustez, kirolen bat egin beharko al zenuke? Adinaren arabera (%)**




Iturria: egindako galdetegietatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

Kiroliek egiten ez duten eta onartutako desgaitasunen bat duten lau emakumetatik hiruk uste dute kirolen bat egin beharko lukeela.

Kiroliek egiten ez duten (% 50,5) emakumeen % 30,3k "zer edo zer" eskatuko lioke Leioako Udalari emakumeen kirol-jarduera handitzeko, hala nola, kirol-jardueren edo zerbitzuen prezioa merkatzea, edo langabezia dauden pertsonentzako laguntzaren bat edo prezio bereziak finkatzea.

Beste batzuek ikastaro eta jardueren eskaintza zabaltzea aipatzen dute, ikastaro motibagarriagoak antolatzea, dantzak, jardueren ordutegia zabaltzea edo aire zabaleko talde-jarduerak antolatzea. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako eskaerak ere egin dituzte, bai eta haurtzaindegi-zerbitzua zabaltzeko aukera ere.

**54. grafikoa: hobekuntza-eskaerak (%)**



Iturria: egingako galdetegietaatik lortutako datuetatik egileak landutako datuak.

## Azterketa kualitatiboa: profesionalei eta emakumeen eztabaida-taldeei egindako elkarrizketak

Azterketa kualitatiboa bi teknika erabilia egin da: kirol-munduko zortzi emakume profesionalekin elkarrizketa eta eztabaida-taldea. Hortik lortutako emaitzak honako hauek dira.

### Elkarrizketei dagokienez

Elkarrizketatutako guztiei galdetu zitzairen Leioako kirol-jarduerari buruzko ikuspegi orokor eta egunekoa zein zen, kontuan hartuta sexuaren, adinaren, egoera ekonomikoaren eta abarren inguruan dauden aldeak.

Erantzunak nahiko homogeneoak izan ziren, ia denek esan baitzuten kirolak Leioan nahiko onarpen ona duela. Arlo guztietan kirol-jarduera asko dagoela uste dute: elite mailan, eskolan, parte hartzeko kirolean eta kirol federatuan, baina ez daukate atal horri buruzko informaziorik.

Erabili ahal izateko espazio gehiago behar dira, eta/edo kirola egiteko plaza gehiago ere bai; izan ere, gaur egun emakume eta gizon asko geratzen dira kanpoan.

Kirol-modalitate guztietan emakumeen presentzia nahikoa dagoela uste dute, pilotan izan ezik. "Leunagotzat" jotzen diren kirolean (tai-chi, pilates, mantentze-gimnasia) eta batez ere taldeko jardueretan, emakume gehiago daude, batez ere goizetan, eta emakume askok lagunak egiten dituzte jarduera horretan urteak daramatzatenean artean.

Ordutegi eta jarduerari dagokienez instalazioen erabileran gizonen eta emakumeen artean alderik sumatzen ote duten galdetzean, denek baietz diote; izan ere, emakumeek goizeko jardueretan parte hartzen dute batez ere, ariketa fisikoa lasaiagoa denean. "Intentsuagotzat" jotzen diren jardueretan, taldeko kirolean (futbola, saskibaloia, waterpolo, etab.), emakume gutxiagok hartzen du parte, gimnasia erritmikoan eta eskola-kirolean izan ezik, horretan neskek eta mutilek berdinduz auzeratzten baitute zer kirol egingo duten.

Kirol federatuari dagokionez, Leioan, kategoria berean jokatzen emakume eta gizonen taldeak dituzten klub gehienetan ez dago ordutegi desberdintasunik kantxa banatzeko. Hala ere, beste udalerririk batzuetako klubetan oraindik aldeak daudela, eta ordurik txarrenak, esaterako, beti emakumei

egokitzen zaizkiela adierazten dute. Horren errua klubetako Zuzendaritza Batzordeei egozten diete, ez baitago emakumerik.

Gizartearen eta erakundeen aintzatespenari dagokionez, kirol minoritarioetako jokalaria, entrenatzaile eta zuzendaritzako kide batzuek euren kirol-lorpenen baloraziorik eza hautematen dute.

Oro har, uste dute emakumeek eta gizonak erraztasun berberak dituztela kirola egiteko. Inork ez du uste emakumeek eragozpen berezirik dutenik eurak nahi duten ariketa fisikoa egiteko, kirol-instalazioetan ordutegi-tarte zabala dagoelako, eta askotariko kirol-eskaintza egiten delako.

Hala ere, inguru sozialean eragozpenen bat aurki daitekeela aipatu zuten, hau da, lagunek kirola egitea aurpegiatzea eta batzuetan nahiago izatea kirola egitea koadrilarekin egotea baino esaterako, partida bat jokatzeko goiz jaiki behar dutenez ezin direlako bezperan berandura arte geratu. Iruditzen zaie mutili gehiago errespetatzen zaizkiela halako erabakiak.

Kirol federatua egiten duten emakumeek eragozpenak aurkitzen dituzte helduarora iristean, unibertsitate-aldia igarota ere kirola egiten jarraitzea aurpegiatuz, "emakume batentzat nahikoa dela" ulertaraziz.

Kirol-ereduak komunikabideetan nola ikusten dituzten azaltzea proposatu zitzairen, eta aho batez azaldu zuten mutilen kirola dela agertzen den bakarra. Gizonen eta kirolen irudia indarra, abiadura, eta abarrekin lotzen da. Emakumeen kasuan estetikarekin eta edertasunarekin lotzen da beti, "*emakumeek izerdituko ez balute edo izerditzea txarto balego bezala*". Presentziarik handiena mutilen futbolak du, eta gainerako kirolak ikusezinak dira, are gehiago emakumeek egiten badituzte.

Proposatutako hobekuntzei dagokienez, eremu guztietan emakumeen kirol-kultura handitzeko jarduerak proposatu ziren. Batez ere Udalaren aldeotasunaren premia aipatu zuten, ikuskizunak sustatu behar ditu asistentzia eta kirol-jardueren ikusgarritasuna handitzeko: argi-iragarkiak, kartelak, buletinak, eta sare sozialak (twitter, facebook) erabiliz. Era berean, interesgarria litzateke dauden kirolei buruzko informazioa ematea eta horiek sustatzea, gizonena zein emakumeena izan.

Kirol egokituko hobekuntzei dagokienez, pertsona horiei zuzenduriko jarduerak baleude (gizon nahiz emakume), seguru izena emango luketela, baina ez dagoenez, beste udalerrri batzuetara joaten dira.

Familia-erantzukizunak dituzten pertsonak ere kirol-instalazioetarako sarbidea izan dezaten, espazioak, haurtzaindegia edo ludoteka ipintzea emakumeek eta gizonak kirola egiten duten bitartean umeak zaintzeko, batez ere ikastegietako oporraldietan. Gurasoek hurrekin (jaioberriekin) batera kirola egiteko jarduerak ere proposa daitezke.

Eskola-eremuan jolas-espazioaren eta materialen erabilera eta denbora berdintasunez banatzea nesken eta mutilen artean eta kontrolatzea.

### **Eztabaida-taldeari dagokionez.**

Eztabaida-taldean parte hartu duten emakume guztiek diote 14 urte baino gehiago daramatzatela kirola egiten. Zehazkiago, bik 14 urte, beste bik 15 urte, batek 16 urte, beste batek 22 urte eta beste batek 39. Denek esan dute txikitatik eskola-kirola egin dutela.

Gehienek komentatzen dute emakume izateak ez dituela nahi izan duten kirola egiteko baldintzatu; zaharrenaren kasuan izan ezik, gai horrekin ados ez dagoela azaldu duen bakarra izan baita. Gainerakoak nahikotxo gazteagoak dira.

Oro har, uste dute neskek eta mutilek berdin aukera ditzaketela entrenamenduetarako ordutegiak, eta emakumeek eta gizonak baliabide eta material berberak dituzte kirola egiteko.

Hala ere, kirola egin eta aisialdiarekin ezin bateratu izanagatik eurek lagunen aldetik eragozpenen bat izan ote duten galdetzean iritzi desberdin asko agertzen da.

Aintzatespen eta balioespen mailari dagokionez ere hainbat iritzi daude; izan ere, erdiak baino gehiagok dio ez dituztela mutilak beste balioesten, kirolean egindako ahaleginari dagokionez.

*"Nire bikotekideak gustuko du nik kirola egitea eta behar dudan denbora guztia ematea horretan"* esaldiari erantzun dioten guztiek esan dute ados daudela horrekin. Emakume bakar batek ez dio galdera horri erantzun.

Denak ados daude esatean komunikabideetan ez diotela emakumeen kirolari gizonen kirolari besteko garrantzia ematen.

Beste horrenbeste kirolarekin zerikusia duten irudiei dagokienez, uste baitute ez direla berdin azpimarratzen edo ikusarazten kirola egiten duten emakumeak eta kirola egiten duten gizonak.

Denak azpimarratzen dute ez zaiela publizitate bera ematen gizonen eta emakumeen kirol-ikuskizunei.

Talde-dinamikan emandako fitxa bete duten zazpi emakumetarik seik uste dute ez dituztela aukera berberak kirol-eremuan etorkizun profesionala taxutzean edo horretan pentsatzean.

## Ondorioak

Atal honen bidez, azterlan honetan bildu den informazio guztia multzokatu nahi da.

Oso gaztetatik hautematen da desberdintasuna kirol-eremuan, bai eta Leioan ere; izan ere Leioan eskola-kirolean izena emana duten lagunetatik % 34,4 baino ez dira neskak. Garrantzitsua da datu hori kontuan hartzea, eskola-kirola baita pertsonen kirolarekin harremana izateko lehenengo bidea. Neska gutxiago egoteak etorkizunean zer gerta daitekeen erakusten du hein batean.

Kontuan hartu beharreko beste gauza bat egiten den kirol mota da; gizonen emakumeek baino askoz kirol gehiago egiten dutelako ustea dagoen arren, emakumeen artean askoz inskripzio gehiago daude hainbat jardueratan: gimnasia, tai-chi, yoga, pilates, dantza, irristaketa, etab. Hala ere, jarduera horiek ez ditu ia inork kiroltzat hartzen. Emakumeek halako jarduera fisikoak nahiago izatea gauza arrunta da EAEn eta Leioan.

Oro har, aisialdian egiteko zer jarduera nahiago duten galdetzean, emakumeen % 66,1ek erantzuten du lagunekin egotea dela. Bigarren tokian (% 37,8) "atseden hartzea" eta hirugarren tokian, (% 33,8) "ibiltzera joatea". Beraz, aisialdian egiteko lehenengo aukera kirola ez den arren, hautatutako hirugarren aukera jarduera fisiko bat da, ibiltzera joatea.

Galdetegian parte hartu duten emakumeen iritzietatik, nahiz egindako elkarrizketa eta eztabaidataldetan esandakotik ondoriozta daiteke Leioan erraza dela kirola egitea, instalazio asko eta kirol-eskaintza zabala daudelako. Inkesta egin duten emakumeen artean, 25-44 urte bitartekoak dira iritzi horri eusten diotenak.

Parte hartu duten emakumeen ia erdiak kirola egiten du, eta gehienak 25-44 urte bitartekoak dira. Beraz, azterlanean zehar bi ikuspuntuak jaso ahal izan dira, kirola egiten duten emakumeena eta egin ez dutenena.

Kirol-elkarteekin edo federazioekin loturik dauden emakumeen iritziak, Leioan ez dago desberdintasunik emakumeen kirol-taldean eta gizonen kirol-taldean artean ordutegi, instalazio, eta abarri dagokienez. Gai horiek, hein handi batean Zuzendaritza Batzordeen araberakoak eta batzorde horietan emakumeak egotearen edo ez egotearen araberakoak direla uste dute. Aldiz, federatutako emakume horien inguru sozialean inoiz aurkitu izan dute eragozpenik, modu desberdinean onartzen baita adin jakin batetik aurrera emakumeak kirola egiten jarraitzea.



Gaur egun kirolik egiten ez duten emakumeen artean, lautik hiruk parte-hartze mailan egin zuten, ehuneko txikiagoan kirol federatuan eta ia inork ez eskola-kirolean.

Desgaitasunen bat duten eta galdetegiari erantzun dioten emakumeen erdiak dio kirola egiten duela. Hala ere, egiaztatu ahal izan da baliabideak eta kirol-jarduera bera ez daudela desgaitasuna duten emakume horientzat egokituta, eta erakundeek konpondu beharreko auzia dute hori.

Kontuan hartu beharreko beste gai garrantzitsu bat galdetegia egin duten emakumeek duten denbora-erabilgarritasunari egiten dioten behin eta berriroko aipamena da, bai kirola egiten dutenek bai egiten ez dutenek. Denek diote oso asti gutxi dutela euren eguneroko bizimoduan.

Kirola egiten duten emakumeen erdiak astean 3 egun baino gutxiagotan egiten du, eta adinean aurrera egin ahala, denbora murriztu egiten da. Gehienek banaka egiten dute kirola, eta gutxiengoa dira aire zabalean egiten dutenak.

Kirola egiten dutela dioten hamar emakumetatik batek elkartearen edo federazioaren bidez egiten du, eta maila horretan egiten dutenen kopurua jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala.

Emakume gehienek (% 40,8) 1 eta 3 urte bitarte daramatzate kirola egiten, eta desgaitasunen bat duten emakumeen kasuan, ibilbidea gehienena baino luzeagoa da, % 56,2k dio 4 eta 6 urte bitarte daramatzala.

Emakume gutxi dira kirol-jarduera inoiz eten behar izan dutenak, eta horiek 45-64 urte bitartekoak dira, batez ere laneko arrazoiengatik, beste pertsona batzuk zaindu behar izateagatik, eta osasun-arazoengatik utzi dute. Gaur egun kirolik egiten ez duten emakumeen kasuan, kirola uzteko arrazoi nagusiak berberak izan ziren, lanarekin eta zaintzarekin loturikoak.

Kirola egiten duten emakume gehienek gustuko dutelako egiten dute (% 20,1), jarraian, osasunari eutsi edo hobetzeko (% 16,4), eta lirain egoteko egiten dutenak (% 15,3). Desgaitasunen bat duten emakumeen kasuan, gehienek diote osasunarekin zerikusia duten arrazoiengatik egiten dutela. Beste alde batetik, emakumeek kirola ez egiteko arrazoi nagusia gustuko ez izatea da (% 29,1).

Emakume gehienek lagunen bidez ekin zioten kirolari. Emakume horien ama eta aita gehienek ez zuten kirolik egiten, baina aitek amek baino hein handiagoan. Aldiz, kirola egiten ez duten emakumeen kasuan, kirolik egiten ez duten gurasoen ehuneko handitu egiten da. Beraz, esan daiteke aitak edo amak kirolik ez egiteak eragina daukala alaben kirolean.

Kirola egiteko lekua hautatzeko kontuan hartzen da kokapena eta lantokitik, etxetik edo zaintza-lanak egiten diren lekutik hurbil egotea.

Kirol-jardueren kostuari dagokionez, emakume gehienek hilean 30 euro baino gutxiago inbertitzen dute. Kirola egiten dutenen artean, ez dago garestia delako pertzepziorik. Aldiz, kirola egiten ez duten emakumeen kasuan, garestia dela uste dutenen ehunekoak handitu egiten da.

Oro har, kirola egiten duten ia denek ez dute eragozpenik izan kirola egiteko. Gainerakoek aipatzen dituzten eragozpenen artean, arlo ekonomikoa, plazarik eza edo ezintasun fisikoren bat izan dira. Kirolik egiten ez dutenen artean, ehunekoak aldatu egiten dira, eta handitu egiten dira eragozpen mota aipatzean. Gehienek arlo ekonomikoa aipatzen dute, eta ondoren astirik eza eta osasun-arrazoia.

Kirola egiten duten guztiak uste dute nahikoa dela egiten duten kirola, ez horrela kirola egiten ez dutenek; izan ere, erdiak baino gehiago onartzen du "zer edo zer" egin beharko lukeela, eta desgaitasunen bat duten lau emakumetatik hiruk uste dute kirolen bat egin beharko luketela.

Emakumeen kirolaren ikusgarritasunari eta gizarte-onarpenari dagokionez, denek uste dute komunikabideek gizonen kirolari ematen diotela garrantzia, eta indarrarekin eta trebetasun fisikoarekin lotzen dela, eta emakumeen kirola ahaztu egiten dutela.

Egindako azterketan ikus daitekeenez, emakumeen kasuan kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsua adina da; kirola ez delako modu berean bizitzen emakumeen adina kontuan hartuta. Leioan kirola egiteko erraztasuna dagoela uste duten emakume gehienek 25-44 urte bitarte dituzte. Adin-tarte berekoak dira kirola egiten dutela eta astean asti gutxi dutela esaten dutenak.

Astean 3-5 egunez kirola egiten duten emakume gehienak gazteak dira, 16-24 urte bitartekoak, eta 65 urtetik gorakoak.

Gazteenek eskola-kirola egin dute eta federatuei dagokienez, adinean aurrera egin ahala, emakume federatuen kopurua jaitsi egiten dela ikusten da, eskola-kirola funtsezkoa baita kirol federatura iristeko. Era berean, adinean aurrera egin ahala handitu egiten da parte-hartzeko kirola egiten duten emakumeen kopurua.

Inoiz kirol-jarduera eten dutela onartzen duten emakume gehienak 45-64 urte bitartekoak dira. Era berean, 25-44 urte bitarteko emakumeak dira kirol-eremuan "familia aurrekari" gehien dituztenak. Oro har, gaur egun kirola egiten duten emakume gehienek uste dute behar beste kirol egiten dutela.

Kirola uzteko arrazoiei dagokienez arrazoi desberdinak daude adinaren arabera: 45-64 urte bitarteko emakumeen kasuan, lanarekin edo zaintzarekin loturiko arrazoiak dira, eta 25-44 urte bitartekoen kasuan bestelako arrazoiak dira: bikotekideak, lagunak, ikasketak, arrazoi medikoak, etab.

Proposatzen diren hobekuntzei dagokienez, kirola egin ohi duten emakumeen % 15ek soilik eskatuko lioke kirol-jarduera hobetzeko edo errazteko zer edo zer Leioako Udalarari, eta kirola egiten ez duten

emakumeen kasuan, % 30,3 dira. Galdetegietatik, egindako elkarrizketetatik eta eztabaida-taldetik jasotako eskaerak honako hauek dira:

- Kirol-jardueren kopurua handitzea.
- Defentsa pertsonaleko ikastaroak.
- Ikastaro merkeagoak.
- Jarduera bakoitzerako plaza gehiago.
- Mendizaletasuna sustatzea.
- Dantza-ikastaroak ematea.
- Taldeko jarduera gehiago.
- Ordutegi-malgutasuna.
- Aire zabaleko jarduerak.
- Hilean asteburu batean, doako kirol-jardueraren bat antolatzea.
- Emakumeei zuzenduriko tailerrak, hainbat kirol probatzeko aukera izateko.
- Langabezian dauden pertsonen kirol-jarduera sustatzeko laguntzaren bat edo tasa bereziak sortzea.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako jarduera espezifikoak.
- Hautzaindegi-zerbitzua eta ludoteka.
- Batez ere Udalaren aldekotasuna sortzea, ikuskizunak sustatu behar ditu asistentzia eta kirol-jardueren ikusgarritasuna handitzeko: argi-iragarkiak, kartelak, buletinak, eta sare sozialak (twitter, facebook) erabiliz.
- Gizonentzako nahiz emakumeentzako dauden kirolak berdintasunez sustatzea eta horien berri ematea.
- Eskola-eremuan jolas-eremuen eta materialen erabilera eta denbora berdintasunez banatzea nesken eta mutilen artean eta kontrolatzea. Era berean, batzuk zein besteak jolasteko material berdinak ahalbidetzea.

Hasieran planteatutako hipotesiak berretsi egin dira hein batean edo bestean azterlanean zehar. Hona hemen:

*1. Eskola-kirolaren barruan, neskek mutilek baino kirol gutxiago egiten dute.*

Leioan eskola-adinean dauden nesken eta mutilen kopurua antzekoa izan arren, eskola-kirolean diharduten neskek % 34,4 dira, eta mutilak % 65,6.

*2. Gurasoek kirola egitea edo ez egitea baldintzatzaile garrantzitsua da kirol-jarduerarako:*

Kirola egiten duten nahiz egiten ez duten emakumeen artean kirola egiten zuten gurasoen ehunekoak baxua den arren, are baxuagoa da gaur egun kirolik egiten ez duten emakumeen artean. Beraz, esan daiteke arlo horrek nolabaiteko eragina daukala.

*3. Emakume askok egiten du ariketa fisikoa tai-chi, yoga eta pilatesen antzeko jarduerak eginez.*

Leioako udal-instalazioetan egiten diren mota horretako jarduera guztietan gizon baino emakume gehiago dago.

4. *Ariketa fisiko batzuk (tai-chi, yoga, paseatzea, etab.) ez direla kirola uste dute askok eta askok.*

Oro har, jarduera horiek "kirol leun" gisa hartzen dira, eta kirola hitza jarduera lehiakorragoekin eta indarrarekin lotzen da. Kontuan hartu behar da kiroltzat jotzen ez diren jarduera horiek egiten dituzten emakumeen kopurua oso altua dela.

5. *Instalazioak atseginak izateak asko laguntzen du kirol-jardueran:*

Instalazioa aukeratzeko emakumeek kontuan hartzen duten arrazoi nagusia ez den arren, instalazioak atseginak izatea kontuan hartzen duten hirugarren arrazoia da.

6. *Kirol-jarduera eteten duten emakumeak familia-zamak dituzten emakumeak izan ohi dira:*

Azterketan zehar azaldu den bezala, kirol-jarduera baztertzeko arrazoi garrantzitsuenetako bat, lanarekin batera, familia-zamak dira, zaintza bereziki.

7. *Kirola egiten duten emakumeei ez zaie garestia iruditzen kirol-jarduera.*

Kirola egiten duten emakume gehienek iritziz, hots, % 73,3ren ustez, ez da garestia.

8. *Kirolik egiten ez duten emakumeak astirik ez dutelako edo familia-erantzukizunez arduratu beharra dutelako izaten da.*

Hipotesi hori ez da guztiz berresten; izan ere, emakumeek duten asti falta alderdi garrantzitsua den arren, kirolik ez egiteko arrazoiei buruz galdetzean, gehienek diote ez dutela gustuko (% 29,1).

9. *Kirol egokitua ez dago ikusgai udalerrian.*

Hipotesi hori guztiz berresten da, horri buruzko galdera egitean gaiari buruz dagoen informazio-falta hautematen baita.

10. *Emakume federatuek kirol-ibilbide luzea daukate:*

Eztabaida-taldearen bitartez egiaztatu ahal izan da kirol federatuan diharduten emakumeek eskola-adinaz geroztik egiten dutela jarduera mota hori, eta orokorrean, euren ibilbidea kirola egiten duten gainerako emakumeena baino luzeagoa da.

11. *Gaur eguneko krisi ekonomikoaren ondorioz, emakumeek nahiago izaten dute astia dirurik eskatzen ez dien beste jarduera batzuetan ematea.*

Kirola egiten ez duten eta kirola egitea garestia dela uste duten emakumeen artean jaso da iritzi hori.

## Hobekuntza-plana

Jarraian, kirolaren sustapenean zetikusia duten erakunde eta eragile sozialek egin beharreko lanerako ildoak proposatzen dira. Ekintza horiek ikastegietan, guraso-elkarteetan, aisialdiko eskoletan, kirolaren eremuan, kirol-egitura pribatu zein publikoetan, kirol-klub eta federazioetan, desgaitasuna duten pertsonen elkarreetan, udaleko kirol eta hezkuntza sailetan, eta abarretan azter daitezke.



INPLIKATURIKO ERAGILEAK / ARDATZAK	1.1. KOMUNIKAZIOA	1.2. TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA	1.3. EZAGUTZA	1.4. PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK
<p><b>1. ESKOLA KIROLA</b></p>	<p><b>1.1.1. KIROL-IKUSKIZUN ETA BERRIKUNTZEN PUBLIZITATE BERDINKIDEA SUSTATZEA.</b></p> <p>1.1.1.1. Sare sozialetan asteburuetakotako kirol-ekitaldiak eta klubek zein kirol-erakundeek sartu nahi dituzten berrikuntzak barnean hartuko dituen eta neskek eta mutilak kontuan hartuko dituen soslai bat sortzea.</p> <p>1.1.1.2. Eskola-kirola publizitatzen duten kartelak Leioako ikastetxe guztietara heltzen direla bermatzea.</p> <p>1.1.1.3. Eskolako talde edo kirolarien kasuan, komunikabideetan neskek nahiz mutilak agertuko direla bermatzea.</p> <p><b>1.1.2. KIROL-EREMUKO HIZKERAN ETA IRUDIETAN GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA.</b></p> <p>1.1.2.1. Eskola-kirolean ikuspegi berdinkidea oinarri hartuta, hizkera eta irudiak erabiltzeko gida didaktikoa sortzea.</p> <p>1.1.2.2. Argitaratutako dokumentuak genero-ikuspegia sartuz egokitzea.</p> <p>1.1.2.3. Agiri berriak genero-ikuspegiarekin idatziko direla bermatzea.</p>	<p><b>1.2.1. KIROL-ARLOAN DAUDEN GENERO-ESTEREOTIPOAK APURTZEA.</b></p> <p>1.2.1.1. Eskolako kirol-moduluak antolatzea neskek eta mutilak normalean beste sexuak egiten dituen kirolek hurbiltzeko.</p> <p>1.2.1.2. Begiraleei eta staff teknikoari zuzenduriko berdintasun-trebakuntzarako ikastaroak antolatzea.</p> <p>1.2.1.3. "Kiroleko berdintasunaren astea" sortzea.</p> <p>1.2.1.4. Kirol mistoa sustatzea modalitate guztietan.</p> <p><b>1.2.2. IKASLEAK ETA FAMILIAKOAK BERDINTASUNAREN ETA KIROLAREN ARLOAN SENTSIBILIZATZEA.</b></p> <p>1.2.2.1. Berdintasunaren eta kirolaren alorreko sentsibilizazio-jardunaldia antolatzea guraso eta familientzat.</p> <p>1.2.2.2. "Multikirola: bi belaunaldi misto" lehiaketak antolatzea, familien arteko balio-trukaketa sustatzeko.</p> <p><b>1.2.3. NESKEK ETA NESKA GAZTEEK ESKOLA-KIROLEAN PARTE HARTZEA SUSTATZEA.</b></p> <p>1.2.3.1. "Gimball" lehiaketa antolatzea, hau da, gimnasia futbola edo saskibaloiarekin elkartzea, neskena dela jotzen den kirolaren eta mutilena dela</p>	<p><b>1.3.1. ESKOLA-ADINEAN DAUDEN NESKEN KIROL-JARDUERA AZTERTZEA.</b></p> <p>1.3.1.1. Eskola-kirolean izena emana duten pertsonen buruzko datuak sexuaren arabera banatuta daudela bermatzea.</p> <p>1.3.1.2. Eskola-adinean dauden nesken kirol jardunari buruzko azterketa egitea, kontuan hartuta parte hartzen duten ala ez, zer kirol mota egiten duten, zer baldintzatan, eta abar.</p> <p>1.3.1.3. Eskola-adinean dauden neskek kirolik ez egiteko arrazoiak zein diren jakitea.</p> <p><b>1.3.2. ESKOLA-KIROLEAN KOMUNIKAZIO-ESTILO BERDINKIDEA BERMATZEA.</b></p> <p>1.3.2.1. Komunikazio-estiloa teknikarien genero-ikuspegitik aztertzea (adierazpenak, motibazioa, irainak).</p> <p><b>1.3.3. AISIALDI ETA DENBORA LIBRERAKO NESKEK ZER LEHENTASUN DITUZTEN JAKITEA.</b></p> <p>1.3.3.1. Eskola-adineko neskek aisialdirako zer lehentasun dituzten aztertzea.</p>	<p><b>1.4.1. FAMILIAKO KIROL-JARDUERA SUSTATZEA.</b></p> <p>1.4.1.1. Berdintasuna eta aniztasuna sustatzeko, familiarentzako jarduerak egitaraua taxutzea.</p> <p>1.4.1.2. Ikasturte bakoitzaren hasieran ate irekiko jardunaldia egitea nesken kirola sustatzeko eta kirola anitza dela helarazteko.</p> <p><b>1.4.2. KIROL ARLOKO DISKRIMINAZIO-EGOERAK HAUTEMATEA.</b></p> <p>1.4.2.1. Eskola-kirolaren barruan diskriminazio-egoerak hautemateko protokoloa sortzea (jazarpena, irainak, xantaila...).</p> <p>1.4.2.2. Espazioak, materialak eta jolasak jolastorduan eta atsedean orduetan berdintasunez erabiltzeko denbora-protokolo bat zehaztea.</p>

<b>ESKOLA KIROLA</b>	<p><b>1.1.3. KIROL-IKUSKIZUNETAN NESKEN ZEIN MUTILEN PARTE-HARTZE BERDINKIDEA SUSTATZEA.</b></p>	<p>jotzen denaren arteko arauak trukatzeko.</p>		
	<p>1.1.3.1. Leioan egiten diren kirol ekitaldietan nesken eta mutilen parte-hartze berdinkidea bultzatzea (torneo, erakustaldi, topaketa, omenaldi, etab.)</p>	<p>1.2.3.2. Nesken kiroletako parte hartzea sustatzeko tailerra egitea, kirol-jarduerak dituen onurak eta aukera profesionalak azalduz eta landuz (entrenatzea, epaile izatea...).</p>		
	<p>1.1.3.2. Eskola-kirolean nesken parte-hartzea ikusarazteko publizitate-kanpaina bat egitea.</p>	<p>1.2.3.3. Eskola-adinean dauden neskenentzat erreferentzia izango den emakume kirolari batekin tailerra antolatzea.</p>		

INPLIKATURIKO ERAGILEAK / ARDATZAK	2.1. KOMUNIKAZIOA	2.2. TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA	2.3. EZAGUTZA	2.4. PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK
	2.1.1. KIROL-IKUSKIZUN ETA	2.2.1. KIROL-ARLOAN DAUDEN	2.3.1. EMAKUMEAK KIROL	2.4.1. KIROL FEDERATUAN PARTE-



MURGIBE, Berdintasunerako aholkularitza

<b>2. KIROL FEDERATUA</b>	<b>BERRIKUNTZEN PUBLIZITATE BERDINKIDEA SUSTATZEA.</b>	<b>GENERO-ESTEREOTIPOAK APURTZEA.</b>	<b>FEDERATUAN DUTEN PARTE-HARTZEA AZTERTZEA.</b>	<b>HARTZEA SUSTATZEA.</b>
	<b>2. KIROL FEDERATUA</b>	<b>2.1.1.1.</b> Sare sozialetan asteburuetak kirol-ekitaldiak eta klubek zein kirol-erakundeek sartu nahi dituzten berrikuntzak barnean hartuko dituen eta emakumeak eta gizonak kontuan hartuko dituen soslai bat sortzea.  <b>2.1.1.2.</b> Kirola publizitzeko karteletan modu berdinkidean egingo dela bermatzea udalerrian.  <b>2.1.1.3.</b> Komunikabideetan talde edo kirolariren batek parte hartu behar badu bere jardunarekin zerikusia duen zerbituetan, emakumeak ikusaraziko direla eta gizon beste emakume agertuko direla bermatzea.  <b>2.1.2. KIROLAREKIN ZERIKUSIA DUTEN AGIRIETAN HIZKERA ETA IRUDIEN ERABILERA BERDINKIDEA EGITEA.</b>  <b>2.1.2.1.</b> Kirol federatuaren eremuan, genero-ikuspegia kontuan hartuko duen Hizkeraren eta Irudien gida bat sortzea.  <b>2.1.2.2.</b> Argitaratutako dokumentuak genero-ikuspegia sartuz egokitzea.  <b>2.1.2.3.</b> Agiri berriak genero-ikuspegiarekin idatziko direla bermatzea.  <b>2.1.3. KIROL-IKUSKIZUNETAN PARTE-HARTZE BERDINKIDEA SUSTATZEA.</b>  <b>2.1.3.1.</b> Leioan egiten diren kirol ekitaldietan gizonen eta emakumeen parte-hartze berdinkidea bultzatzea (torneo, erakustaldi, topaketa,	<b>2.2.1.1.</b> Begiraleei eta staff teknikoari zuzenduriko berdintasun-trebakuntzarako ikastaroak antolatzea.  <b>2.2.1.2.</b> "Kiroleko berdintasunaren astea" sortzea.  <b>2.2.2. KIROLAREN ETA BERDINTASUNAREN ALORRETAN KIROLARIAK ETA HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA.</b>  <b>2.2.2.1.</b> Nesken saskibalo, eskubalo edo futboleko nazioarteko torneo bat sortzea (epaileak, teknikariak, eta abar neskak izanda).  <b>2.2.3. EMAKUMEEK KIROL FEDERATUAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.</b>  <b>2.2.3.1.</b> Taldeko kirol-tailerrak antolatzea emakumeekin, batez ere gizonak egiten duten kirolarekin lehenengo harreman izan dezaten.  <b>2.2.3.2.</b> Federatutako emakume kirolarien artean sareak sortzeko topaketak sustatzea.	<b>2.3.1.1.</b> Kirol federatua izena emana duten pertsonen buruzko datuak sexuaren arabera banatuak daudela bermatzea.  <b>2.3.1.2.</b> Kirol federatua diharduten emakumeen kirol jardunari buruzko azterketa egitea, kontuan hartuta parte hartzen duten ala ez, zer kirol mota egiten duten, zer baldintzatan, eta abar.  <b>2.3.1.3.</b> Maila federatua iritsitakoan kirola uzteko arrazoiak zein diren jakitea.  <b>2.3.2. FEDERAZIO ETA KLUBETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA ZENBATERAINOKOA DEN AZTERTZEA.</b>  <b>2.3.2.1.</b> Teknikariek hizkera ez-sexista erabiltzen duten aztertzea.  <b>2.3.2.2.</b> Zuzendaritza Batzordeetan horren emakume gutxi zergatik dagoen eta horren ondorioak aztertzea genero-ikuspegitik.



	omenaldi, etab.)  2.1.3.2. Kirol federatuen emakumeen parte-hartzea ikusarazteko publizitate-kanpaina bat egitea.			
--	---	--	--	--



MURGIBE, Berdintasunerako aholkularitza

INPLIKATURIKO ERAGILEAK/ ARDATZAK	3.1. KOMUNIKAZIOA	3.2. TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA	3.3. EZAGUTZA	3.4. PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK
<p><b>3. PARTE-HARTZEKO KIROLA</b></p>	<p><b>3.1.1. KIROL-IKUSKIZUN ETA BERRIKUNTZEN PUBLIZITATE BERDINKIDEA SUSTATZEA.</b></p> <p>3.1.1.1. Leioan egiten diren nesken zein mutilen kirol-ikuskitzunei buruzko informazioa batuko duen soslai sortzea hainbat sare sozialetan.</p> <p>3.1.1.2. Kirola publizitzeko karteletan modu berdinkidean egingo dela bermatzea udalerrian.</p> <p>3.1.1.3. Eskolako talde edo kirolarien kasuan, komunikabideetan neskak nahiz mutilak agertuko direla bermatzea.</p> <p><b>3.1.2. KIROLAREKIN ZERIKUSIA DUTEN AGIRIETAN HIZKERA ETA IRUDIEN ERABILERA BERDINKIDEA EGITEA.</b></p> <p>3.1.2.1. Kirolaren eremurako Hizkera eta Irudi ez-sexisten Gida sortzea.</p> <p>3.1.2.2. Argitaratutako dokumentuak genero-ikuspegia sartuz egokitzea.</p> <p>3.1.2.3. Agiri berriak genero-ikuspegiarekin idatziko direla bermatzea.</p>	<p><b>3.2.1 KIROL-ARLOAN DAUDEN GENERO-ESTEREOTIPOAK APURTZEA.</b></p> <p>3.2.1.1. Zuzenean gizonekin lotzen diren kirolekin harremana izateko, emakumeen taldeko tailerra sortzea.</p> <p>3.2.1.2. Gizon helduei zuzenduriko kirol-jardueren ikastaroak antolatzea, euren jarduera fisikoa adinari doitzeko, eta genero-estereotipoak apurtzeko.</p> <p>3.2.1.3. Berdintasunean trebatzeko ikastaroak egitea udal-instalazioetako langileentzat eta begiraleentzat.</p> <p><b>3.2.2. KIROLAREN ETA BERDINTASUNAREN ALORRETAN KIROLARIAK ETA HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA.</b></p> <p>3.2.2.1. "Ondizerako igoera" antolatzea, batik bat emakumeak ukitzen dituen gizarte/osasun kausa baten alde egiteko: anorexia, bulimia, etab.</p> <p><b>3.2.3. EMAKUMEEK KIROLEAN TALDEAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.</b></p> <p>3.2.3.1. Emakumeek eremu horrekin</p>	<p><b>3.3.1. EMAKUMEEK PARTE HARTZEKO KIROLEAN DUTEN PARTE-HARTZEA AZTERTZEA.</b></p> <p>3.3.1.1. Parte hartzeko kirolean izena emana duten pertsonen buruzko datuak sexuaren arabera banatuak daudela bermatzea.</p> <p>3.3.1.2. Parte hartzeko kirolean diharduten emakumeen kirol jardunari buruzko azterketa egitea, kontuan hartuta zer kirol mota egiten duten, zer baldintzatan, zer premia dituzten, eta abar.</p> <p>3.3.1.3. Emakumeek kirolik zergatik ez duten egiten edo egun egiten dutena baino gehiago zergatik egingo luketen (premiak) aztertzeko topaketa bat egitea Leioako emakumeekin.</p> <p>3.3.1.4. Udalaren kirol-eskaintza Leioako emakumeen egoerarekin eta premiekin bat datorren aztertzea.</p> <p><b>3.3.2. PARTE-HARTZEKO KIROLEAN KOMUNIKAZIO-JARDUN BERDINKIDEA EGINGO DELA BERMATZEA.</b></p> <p>3.3.2.1. Komunikazio-estiloa teknikarien</p>	<p><b>3.4.1. LANA, FAMILIA, KIROLA ETA NORBERAREN BIZIMODUA UZTARTZEA AHALBIDETZEA.</b></p> <p>3.4.1.1. Udalaren kirol-instalazioetan haurtzaindegi-zerbitzua ipintzea.</p> <p>3.4.1.2. Udalaren kirol-instalazioetan ludoteka-zerbitzua sortzea, batez ere eskolako oporraldietarako.</p> <p>3.4.1.3. Haurtxoekin egiteko kirol-jarduerako ikastaro bat antolatzea gurasoentzat. "Egizu kirola zure haurtxoarekin"</p>

<p><b>3. PARTE-HARTZEKO KIROLA</b></p>	<p><b>3.1.3. KIROL-IKUSKIZUNETAN PARTE-HARTZE BERTINKIDEA SUSTATZEA.</b></p> <p>3.1.3.1. Leioan egiten diren kirol ekitaldietan gizonen eta emakumeen presentzia berdinkidea bultzatzea (torneo, erakustaldi, topaketa, omenaldi, etab.)</p> <p>3.1.3.2. Emakumeek kirolean parte har dezaten sustatzeko publizitate-kanpaina bat egitea, emakumeek gehienetan gizonen egiten dituzten kirolekin lehenengo harremana izan dezaten.</p>	<p>lehenengo harremana izateko, kirolean hasteko taldeko ikastaroak antolatzea.</p> <p>3.2.3.2. Urteko ekitaldi bat antolatzea, emakume kirolari bati saria emateko.</p>	<p>genero-ikuspegitik aztertzea.</p>	
--	--	--	--------------------------------------	--

<p><b>INPLIKATURIKO ERAGILEAK/ ARDATZAK</b></p>	<p><b>4.1. KOMUNIKAZIOA</b></p>	<p><b>4.2. TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA</b></p>	<p><b>4.3. EZAGUTZA</b></p>	<p><b>4.4. PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK</b></p>
---	---------------------------------	---	-----------------------------	---



<p><b>4. KIROL EGOKITUA</b></p>	<p><b>4.1.1. KIROL EGOKITUKO IKUSKIZUN ETA BERRIKUNTZEN PUBLIZITATE BERTINKIDEA SUSTATZEA</b></p> <p>4.1.1.1. Leioan egiten diren kirol-ikuskitzunei buruzko informazioa biltzeko soslaiak sortzea sare sozialetan, kirol egokitua bereziki ikusaraziz (emakume zein gizonena).</p> <p>4.1.1.2. Kirol egokituaren jarduna berdinkidetasunez eta sistematikoki txertatzea udalerrian publizitate-kanpainak egiten direnean.</p> <p>4.1.1.3. Kirol egokitua egiten duten pertsonak komunikabideetan ager daitezen sustatzea, gizon zein emakume.</p> <p><b>4.1.2. KIROL EGOKITUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN AGIRIETAN HIZKERA ETA IRUDIEN ERABILERA BERTINKIDEA EGITEA.</b></p> <p>4.1.2.1. Desgaitasuna oinarri hartuta, kirol-eremurako hizkera eta irudi berdinkideak erabiltzeko gida sortzea.</p> <p>4.1.2.2. Argitaratutako dokumentuak desgaitasunean genero-ikuspegia sartuz egokitzea.</p> <p>4.1.2.3. Agiri berriak genero-ikuspegiarekin idatziko direla bermatzea.</p> <p>4.1.2.4. Kirol-eremuko publizitatean eta edonolako agirietan kirol egokituari buruzko irudiak txertatzea.</p> <p><b>4.1.3. DESGAITASUNEN BAT DUTEN</b></p>	<p><b>4.2.1 KIROL EGOKITUAREN EREMUAN DAUDEN GENERO-ESTEREOTIPOAK APURTZEA.</b></p> <p>4.2.1.1. Desgaitasunen bat duten emakumeekin tailerrak egitea aukera-mugarik gabe, kirol egokituak lehenengo harremana izan dezaten.</p> <p>4.2.1.2. Bertintasunean eta desgaitasuna kontuan hartuta, trebatzeko ikastaroak egitea udal-instalazioetako langileentzat eta begiraleentzat.</p> <p><b>4.2.2. KIROL EGOKITUAREN ETA BERTINTASUNAREN ALORRETAN KIROLARIAK ETA HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA.</b></p> <p>4.2.2.1. Gorpil-aulkiko 3x3 saskibaloia mistoko lehiaketa antolatzea, neskek eta emakumeek parte hartuta.</p> <p>4.2.2.2. Igeriketa egokituko txapelketa antolatzea, mutil zein neskentzat.</p> <p>4.2.2.3. Kirol egokituarekin zerikusia duten jarduerak txertatzea udalerriko jai-egitarauan, gizonen eta emakumeen parte-hartze berdinkidea bermatuz.</p> <p>4.2.2.4. Kirol egokituaren sentsibilizatzeko jardunaldia antolatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.</p> <p>4.2.2.5. Kirol-erakundeen eta desgaitasuna dutenen artean koordinazio-lerroak finkatzea, desgaitasuna duten nesken eta emakumeen kirol parte-hartzea motibatuz ekimenak abiarazteko.</p> <p>4.2.2.6. Desgaitasunen bat duten nesken</p>	<p><b>4.3.1. DESGAITASUNEN BAT DUTEN EMAKUMEEN KIROL-JARDUERA AZTERTZEA.</b></p> <p>4.3.1.1. Udalerriko edozein kirol-jardueratan izena emana duten eta desgaitasuna duten pertsonen buruzko datuak sexuaren arabera banatuak daudela bermatzea.</p> <p>4.3.1.2. Desgaitasuna duten eta kirolean diharduten emakumeen kirol jardunari buruzko azterketa egitea, kontuan hartuta zer kirol mota egiten duten, zer baldintzatan, zer premia dituzten, eta abar.</p> <p>4.3.1.3. Desgaitasuna duten emakumeen topaketa egitea euren kirol-jarduerari, premiei eta lehentasunei buruz hitz egiteko.</p> <p>4.3.1.4. Udalaren kirol-eskaintza Leioako emakume desgaituen egoerarekin eta premiekin bat datorren aztertzea.</p> <p>4.3.1.5. Kirol egokituko jardueren eskaintza zabaltzeko aukera aztertzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.</p> <p>4.3.1.6. Desgaitasunaren irizpidea sistematikoki txertatzea erakunde publikoek egiten dituzten informazio, txosten, estatistika eta abarrean.</p> <p><b>4.3.2. KIROL EGOKITUAN KOMUNIKAZIO-JARDUN BERTINKIDEA EGINGO DELA BERMATZEA.</b></p> <p>4.3.2.1. Teknikarien eta desgaitasuna duten nesken eta emakumeen arteko</p>	<p><b>4.4.1. UDALAREN KIROL-INSTALAZIO GUZTIAK DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT EGOKITUTA DAUDELA BERMATZEA.</b></p> <p>4.4.1.1. Kirol egokitua egiteko aukera bermatzeko beharrezko neurriak hobetzea edo/ eta mantentzea.</p> <p>4.4.1.2. Desgaitasuna duten emakumeek edozein kirolean parte hartzeko aukera izan dezaten, beharrezko egokitzapen ergonomiko guztiak egitea.</p> <p>4.4.1.3. Kirol-eremuan desgaitasuna duten pertsonekin lan egiteko prestatuta dauden profesionalak edukitzea.</p> <p>4.4.1.4. Desgaitasuna duten pertsonen kirola egiten jarrai dezaten bermatzeko, haien premietara egokituriko eta bateratzea ahalbidetzeko zerbitzuak edukitzea.</p> <p><b>4.4.2. KIROL EGOKITUAN PARTE HARTZEA SUSTATZEA GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA.</b></p> <p>4.4.2.1. Kirol egokituko egitaraua lantzea, desgaitasuna duten pertsonen kirol-jarduerak egiteko genero-ikuspegia kontuan hartuta.</p> <p>4.4.2.2. Udalaren kiroldegietako egitarauen diseinuan, desgaitasuna duten nesken eta emakumeen parte-hartzea sustatzea.</p> <p>4.4.2.3. Diru-laguntza publikoak emateko irizpide gisa, kirol parte-hartzearekin loturiko berdintasun eta</p>
---------------------------------	--	---	---	--



<p><b>4. KIROL EGOKITUA</b></p>	<p><b>PERTSONAK KIROL-IKUSKIZUNETAN BERDINKIDETASUNEZ PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.</b></p> <p>4.1.3.1. Leioan egiten diren kirol ekitaldietan desgaitasunen bat duten gizonen eta emakumeen parte-hartze berdinkidea bultzatzea (torneo, erakustaldi, topaketa, omenaldi, etab.)</p> <p>4.1.3.2. Kirol egokituan nesken eta emakumeen parte-hartzea ikusarazteko publizitate-kanpaina bat egitea.</p>	<p>familiak animatzea kirola egitera anima daitezzen.</p> <p><b>4.2.3. NESKEK ETA EMAKUMEEK KIROL EGOKITUAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA.</b></p> <p>4.2.3.1. Desgaitasuna duten emakumeekin topaketa antolatzea berdintasunean sentsibilizatzeko eta kirol-jarduera sustatzeko. (kirol-eremuan eredu izan daitekeen desgaitasuna duen emakume kirolariren baten presentziarekin).</p> <p>4.2.3.2. Urteko ekitaldi bat antolatzea, desgaitasunen bat duen emakume kirolari bati saria emateko.</p> <p>4.2.3.3. Udalaren kirol-instalazio guztiak desgaitasuna duten pertsonentzat egokituta daudela bermatzea genero-ikuspegia kontuan hartuta.</p> <p>4.2.3.4. Desgaitasuna duten neskek eta emakumeek lehiaketako kirolean parte hartzea sustatzeko beka bat sortzea.</p>	<p>komunikazioa nolakoa den begiratzea eta berdintasuna, errespetua eta autonomia sustatzea.</p> <p>4.3.2.2. "Desgaitasuna duten pertsonenganako arreta genero-ikuspegitik" gaiari buruzko trebakuntza eskaintzea kirol egokituarekin nahiz ez egokituarekin harremana duten langileentzat.</p>	<p>desgaitasun irizpideak txertatzea.</p>
---------------------------------	---	--	---	---